

## Kultura

Sarrionandiak eta Arruabarrenak azokaren  
50 urteotako ibilbidea islatu dute liburu baten > 14



## Obra handien zeharkako kalteak

Garraio sarea hobetzeko helburuz  
obra handi ugari jarri dituzte  
martxan Durangaldean. Baina, azken  
urteotan azpiegitura handien ametsa  
amesgaizto bihurtu da hainbat  
auzotarrentzat. > 2-3



Lehior Elorriaga



### Durangaldea > 8

Aurten 86 emakumek salatu  
dituzte eraso sexistak

### Atxondo > 6

Cemosa enpresan greba  
mugagabea hasi dute

### Elorrio > 7

Pediatra berria euskalduna  
izatea eskatu du alkateak

### Durango > 4

Udalak ez du bonbardaketaren  
kontrako kereila aurkeztuko



## **> Herririk herri**

# Obra handien ametsa, auzotar askorentzako amesgaizto

Garraio azpiegituren kaltetuen bizipenak jaso ditu ANBOTOk erreportaje

### > ERREPORTAJEA ANBOTO

Garraio sarea hobetzeko helburuz, obra handi ugari egiten dabilta azken urtetan. Leku batetik bestera arinago eta seguruago ailegatzea; hori da obren bultzatzaileen ametsa, eta ustez, herritar gehien onurarako da. Baina, azpiegitura berriak garatu ahal izateko, lur mugimendu eta desjabetze ugari egin behar izan dira, eta horrela, auzotar askoren amesgaizto bihurtu dira proiektuak. Autzaganeko tunela, Gerediaga-Beasain autobidea eta AHTa dira Durangaldean gaur egun eragin handiena dutenak, eta urteak atzera, trenari eta trenen kotxetegiari lekua egiteko Lebarioko (Abadiño) Txosna baserriagaz

gertatutakoa egongo da askoren oroimenean. 2007ko apirilean bota zuten Iturriagaitia-Uriarte familiaren etxea, ertzainek desalojatu ostean.

### Autzaganen, beste urte bi

Autzaganeko obra da momentu honetan Bizkaian martxan dagoen obra garrantzitsuenetako bat. 2012an hasi ziren lanak, eta 2015erako bi tunelak zabalik egotea aurreikusi zuten. Baina, obra geratu egin da, eta gutxienez beste urte bi atzeratuko da. Obra 63 milioi eurogatik adjudikatu zioten enpresa-batasun bati, eta udan, ingurumen baldintzei lotutako kostuei ezin ziela aurre egin adierazi zuten. Orain, Aldundiak 4,2 milioi eu-

roko isuna jarri dio enpresa elkarte horri, kontratua ez bete zitea egotzita.

Gerediaga-Elorrio autobidea ere 2012an hasi ziren eraikitzen. Tunel bi eta beste tunel faltsu bi ditu, eta 2016ko udan zabalik egotea aurreikusi du Aldundiak. Irailean, obraren %74 egin zegoela esan zuten. Iaz, EH Bilduk Gaztelu auzoan "legez kanpoko hormigoi fabrika bat" zabaldu izana kritikatu zuten, eta Atxondoko obretan "irregulartasunak" egon zirela ere bai.

Bestalde, Durangaldean eragin handia eduki duen obra da AHTarena. Elorrioren tarte batzuk eraikitzeke daude, eta asteon 80 kaltetu desjabetzeak sinatzera deituta egin dira.



Lebarioko Txosna baserria 2007an bota zuten, desalojatu ostean.

**Karmelo Farelo**  
Abadiño

**“Zergak ordaintzen ditugu eta gero ez dugu babesik jasotzen”**

### > AHT Jone Guenetxea

Tabirako igerilekuetako AHTaren tunelak beste aldetik Karmelo Fareloren Hamairuatxeta baserriara ematen du. Baserria bera Abadiñoko lurretan dagoen arren, Durangorekin muga egiten du. Bere etxe ondoan obrek iraun zuten hiruzpalau urteak ez ditu ahazteko.

### Zer arazo izan zenuten Abiadura Handiko Trenarenaren obrek?

Guk arazo gehien Tabirako tunelaren eraikuntzan izan genuen. Kartzelara joateko zorian egon nintzen. Tunel hori dinamitarekin egin zuten, edozein ordutan. Kanpoko lanak egunez ziren, hori diferentia da, baina ezta 24 orduz.

### Zure egoeraren berri eman zenuen zegokion lekuan? Kexaren bat jarri zenuen?

Tunela bera Durango da, baina ni abadiñarra naiz. Abadiñoko udaletxera joaten nintzen eta zer edo zer egiteko eskatzen nien. Udalak erantzun zidan tunela Durangon dagoenez, kexa hara bideratzeko. Egin nuen, eta haiek Abadiñora jotzeko esan zidaten. Beraz, oso salduta sentitu nintzen.

### Kexek erantzunik izan zuten?

Eztandek berdin-berdin jarraitu zuten. Tunela egiteko, xurgagailu erraldoiak jarri zituzten, barrukoa garbitzeko, eta motorra kanpoan zegoen. Horrek ere zarata handia eragiten zuen, eta kexa jarri eta gero, gure aldean kontenedore handiak jarri zituzten, zarata isolatzeko. Izan ere, tunela Abadiñoko aldetik egiten hasi ziren, Durangoko aldean jende asko bizi delako eta gu, hemen, hiru-lau izan garelako.

### Lur mugimenduekin sarbide arazorik izan zenuten?

Gure bidea, Artatik hona, asfaltatuta dago, baina baserri bidea zen. Arazoak beraiek izan zituzten: hiru-lau aldiz kotxea traban utzi nien. Nik beraien protokoloa ezagutzen nuen. Kotxearena ordubeteko gauza

izaten zen. Inork ez zidan jaramonik egiten.

### Zaratagatik salaketa ere jarri zenuen?

Abadiñoko udaletxean zarata neurgailua eskatu, eta nik neuk egin nuen neurketa. Salaketa jarri nuen, eta obrako zuzendaritzak atzera bota zuten,

**“Udaletxean zarata neurgailua eskatu eta nik neuk egin nuen neurketa”**

gailu hura azterketa pasatu barik zegoelako. Ikusi zuten mugitzen hasi nintzela, eta hortxe hasi ziren eurak ere neurriak hartzen, kontenedorena, esaterako.

### Momentu hartan bizitakoaren zein oroitzapen duzu?

Oso tristea izan zen. Ez genuen inolako laguntzarik izan. Zergak ordaintzen ditugu, eta gero ez dugu babesik jasotzen. Tristeza izan zen. Seme-alabek bi edo hiru urte zituzten. Lehenengo sirena entzuten zen eta gero ezta. Goizaldeko eztaekin, umeak negarrez itzartzen ziren, sustoarekin.

### Tunela barrutik ezagutzea ere tokatu zaizue. Trenaren aurretik zuek erabili duzue.

Kamioien joan-etorriagaz bidea apurtuta gelditu zen, eta konpontzen zuten bitartean ezin ginen handik pasatu. Tunelako giltza eman ziguten eta handik irteten ginen, Durangoko aldetik. Buelta galanta ematen genuen Abadiñora etortzeko.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta  
Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:  
946 232 523

Publizitatea:  
946 217 902  
publi@anboto.org

2015eko azaroaren 20a,  
13. urtea - 611. alea

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea Arrinda.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:**  
Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:**  
Goretti Alonso Armendia  
eta Itxaso Martinez de  
Arenaza Yarza.  
**Erredakzioa:**  
Aitziber Basauri Gandiaga,  
Itsaso Esteban Urriaga,  
Joseba Derteano Bilbao,  
Markel Onaindia Txabarri,  
Amaia Ugaldede Begoña.  
**Maketazioa:**  
Eider Alberdi Bengoa.  
**Zuzentzailea:**  
Mikel Azkarraga Etxegibel.

### Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du





**Jabier Atutxa**  
Katia auzoan bizi da

## “Landaren ordeztu horma handi bat ikustera alde handia dago”



> **AUTZAGANE J.Derteano**  
Katia auzoan duen Katiaberri baserri hiru bat metrora harrisi garai bat eraiki diote Jabier Atutxari. Hormigoizko zimendu horren gainetik errepi-

de nagusian amaitzen den bide bat doa. Hormigoia eta zarata eragozteko panelen artean 10 bat metroko garaiera heltzen da horma, baserriaren ondo-ondoan.

Noiz jakin zenuen baserriaren ondoan hormigoizko harrisi hori izango zenuela?

Orain lau urte, aurreko etxea dena bota eta berria eraiki genuen. Handik urtebetera etorri ziren topografoak lehenengo. Esan zidaten etxearen azpiko aldetik —beste aldetik— zihola bidea. Ez zidan askorik eragiten. Baina gero proiektua aldatu egin zen eta goiko aldetik eta etxetik gertu zihola esan zidaten, hamar bat metrora. Bizkaiko Aldundiagaz Zornotzan zein Bilbon egindako batzar banatan gauza bera esan zidaten: horma 10 metrora zihola. Makinak sartzen hasi zirenean, etxe ondo-ondoan, hiru bat metrora,

marka batzuk ikusi nituen. Injineruak ez zekien zer ziren eta topografoari deitu zion. Hark esan zigun marka horien gainean zihola horma. Injinerua ere harriritu geratu zen, baina “hortik badoa, hortik joan beharko da”, esan zidan. “Zelan liteke?” erantzun nion; hori ez zen batzarretan esan zidatena.

**Protestek ez zuten ezer aldatu.**

Esan nien egoera horretan, etxea hormak estalita, ezin ginela geratu; baina alperrik. Etxeagaz eurak geratzeko eta balio zuena emateko ere eskatu nien. Etxe berria da eta dirua kostatu da, baina, beno, Bedian badut lur zati bat eta han beste etxe bat egiteko prest nengoen. “Ez eta ez” erantzun zidaten.

**Obren aurretik zer zegoen etxearen alde horretan?**

Landa zabal bat zegoen, fruitondoekin eta dozena bat ar-

direkin. Ez ziren nireak, nire auzokoarenak baino. Niri hiru bat metro kendu dizkirate. Baina ikuspegia zen balio zuena. Lehen dena ikusten nuen, zabalatasuna zegoen. Orain etxetik irten eta landa beharrea horma hau ikusi beharra... alde handia dago. [Une horretan mugikorrera deitzen diote, baina hartu aurretik isiltzen da]. Hori ere badugu: hormarekin estaldura ere joan da. Lehen bazegoen.

**Zuk zeuk zelari bizi izan duzu hau dena?**

Etxe berria egin genuenean denek esaten ziguten zer polita geratu zen. Orain ea non sartu garen galdetzen digute. “Hementxe, hormaren atzean” erantzun behar. Hasieran, lorik egin ezinda egoten nintzen eta nerbioek jota. Aldundikoei esaten nien egiten zebiltzana ez zegoela ondo eta ezin zitekeela izan. Lasai egoteko esaten zida-

ten, garrantzitsuena osasuna dela eta gainerakoa konponduko zela. “Zeuek zarete osasuna kentzen didazuenak” erantzun nien. Nire tokian jarri izan balira, ez zuket horrelakorik esango. Batzarretan segurtatu zidaten lez horma etxetik hamar metrora egin izan balute, beste kontu bat izango zen, baina etxearen ondo-ondoan dago!

**Beste albo-kalderik jasan duzue?**

Inguruko argiztapena ere aipatu behar. Beste aldean, azpiko pasabideraino daude kale-argiak, baina handik gure etxera ez. Lehen, gutxienez, landak zabalatasuna eta zelantxetako argitasuna ematen zigun, baina hormak iluntasuna handitzen du. Zornotzako EH Bilduko zinegotziak etorri izan dira gure egoeraren berri jakitera. Ondoren, alkateagaz ere egon naiz eta kale-argiena aztertuko dutela esan dit.

**Rosa Elgezabal**  
Gasolindegia eta Juantxu jatetxearen arteko etxean bizi da

## “Makinak lanean hasi zirenean etxeak dardar egiten zuen”



> **AUTZAGANE J.Derteano**  
Arrakala, itokina, berriztu gabeko horma... Oraindik konpondu bako hainbat kalte ditu Rosa Elgezabalen etxeak.

**Horiek konpontzera etorri ziren langileak, baina ez zuten lana amaitu eta ez dira gehiago itzuli.**

Noiz sortu zen arrakala?

Makinak lanean hasi zirenean bibrazio handiak eragiten zituzten. Handik harri itzelak atera dituzte gero! Etxeak dardara egiten zuen lanean zebiltzanean. Niri belarrietan ere kalte egiten zidan. Lanean hasi eta berehala sortu zen arrakala. Adreilu batzuk ere erori ziren. Horrez gainera, dardarek teilatu zati bateko teilak mugitu zituzten, eta horrek itokin bat eragin zuen.

**Kalteak konpontzera etorri ziren?**

Bai, urriko azken astelehenean etorri ziren langile batzuk. Aldamioa jarri, eta eroritako adreiluak konpondu zituzten. Goizean euria egin zien eta ez zuten beste lanik egin. Joan aurretik esan nien arrakala eta

teilatua amaitu barik zeudela. “Etorriko gara”, esan zidaten. Gaur arte. Ordutik hilabete baino gehiago pasa da. Orain egun bi, Aldundiko ordezkari bat etxe kanpoan ikusi nuen eta beregana irten nintzen. Nire egoera azaldu nion. “Ba, horiek errepideko obra utzia dute”, esan zidan —Autzaganeko lanak geldituta baitaude gaur egun—. Bai, badakit, baina nire zer? Hiru lantxo dira, baina egin barik daude.

**Obrek eragindako beste albo-kalderik izan duzu?**

Etxe ondoan Telefonicaren telefono poste bat dago. Postea mugitu eta lur azpitik bertara doan kable-sarea aldatu dute. Horretarako zoruko hormigoia kendu behar izan zuten. Lan horiek eragindako bibrazioek ortua eta etxondoa bereizten dituen hormari eragin diote. Zati bat konpondu dute, baina ez osoa. Gainera orain kontadorearen postearen barrualdetik da-

goenez, berau begiratzera doazenean hormatik salto eginda sartzen dira barrura eta ortua zapaltzen didate. Telefonicara bidali dut gutun bat, baina ez didate erantzun.

**Lurrik desjabetu dizute?**

Bai, desjabetza bi izan ditut. Bata orain 16 urte, errepidea berri zutenean; bestea, orain. Sasoi baten, noranzko bieta-karrilak bereizten dituen zementozko egitura horietara heltzen zen gure lur zatia.

**Gauzak datozen moduan onartu behar?**

Nik kristoren eztabaidak izan ditut injineruagaz. Ez dut uste hemen horrelako obra handirik behar zenik, baina...

**Orain bidea gertuago izanda, zarata gehiago dago?**

Tira, Aldundiak leihoak aldatu dizkigu; lehen beira bikoitze-koak ziren, eta oraingoak beira lodiagoa dute. Hori bai, uda

osoan ez dut leihorik zabaldu. Izan ere, goizetan, eguzkiak bete-betean jotzen du bide ondoan zarata akustikoa kentzeko jarritako paneletan, eta bere islak begietan lausoa eragiten dit. Bestalde, harantz begiratzek bihotzeko min apur bat ere eragiten dit. Lehen beste alde ikusi ahal nuen, eta orain ez.

**Etxetik ez duzu lehengo ikuspegirik.**

Errepidearen beste aldean zegoen bidera joateko modurik ere ez. Lehen, gasolindegitik pasatzen ginen errepidearen alde batetik bestera. Orain, kilometro eta erdiko joan-etorria egin behar dugu Katia auzoraino. Azkenean, egoera denak kontuan hartuta, ezintasuna sentitzen duzu. Nerbioek ere eragiten dizute: arrakala dela, bestea dela, etorriko direla konpontzen, lana amaitu barik doazela, ez direla bueltatzen... eta ezin ezer egin.

**A. Urreta**  
podologoa

**Ainara Urreta Jainaga**

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10, behea  
48200 · DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404

**MIEKO 4D**  
ESPECIALISTAS EN ECOGRAFIA PRENATAL

Orain, Durango, Miekeo4D

Zure ekografiarik osatuena 50 eurotik gora, eta 20 euroko beharpenak bigarren ekografiatik aurrera.

Olleria, 5 etxebaia DURANGO · Tel.: 690 048 681



# Bonbardaketaren aurka kereila aurkeztea ez dute onartu

Bartzelonako Lurralde Auzitegiak Altraitalia elkartearen kereila onartu du



Martxoaren 31n, bonbardaketen urtemugaren harira eginiko ekitaldia.

**DURANGO** Markel Onaindia Altraitalia elkarte katalanak italiar faxistek Katalunian eginiko bonbardaketen aurkako kereila aurkeztu zuen, gizateriaren aurkako krimenagatik, eta Bartzelonako Lurralde Auzitegiak eskaera tramitatzea onartu du. Gainera, Bartzelonako Udala ere auzira batu da. Espai-

nian nobedade da auzi hori, eta EH Bilduk aukera lez ikusi du. Horregatik, Durangoko bonbardaketaren aurka kereila bat ipintzea eskatu zuen martitzeneko bilkuran. Proposamenak, baina, ez zuen aurrera egin, Herriaren Eskubidearen aldeko bozka baino ez zuelako jaso. Gainerakoek aurka bozkatu zuten.

Dani Maeztuk gogoratu zuen 2012an Durango 1936 elkartearen mozio bat onartu zutela, Espainiako eta Italiako Gobernuen barkamena eskatzea exijitze-ko, Alemaniak Gernikan egin moduan. Aurten, martxoan, Italiako kontsulatuari batzarra eskatzea adostu zuten udalbatzarrean, eta EH Bilduk oraingo

honetan enbaxadari luzatzea proposatu du. Herriaren Eskubideko Julián Ríos enbaxadaria, “udal ordezkarien betebeharra da basakeria hura oroitzea”.

## EAJren eskaera

EAJko Goiztidi Diazek azaldu zuen apirilean erantzun zuela kontsulak, esanez, ez zela bere eskumena, eta gaia enbaxadara igorriko zuela. Kereilaren proposamena beste alderdiei luzatu barik egitea kritikatu zuen Diazek, eta gaia batzordean lantzea eskatu zuen. Maeztuk, ordea, apiriletik hona kontsularen erantzunaz informatu ez izana egotzi zion EAJri.

PSE-EEko Mauricio Garcia- ren ustez, gaur egungo gobernu- ei “ezin zaie barkamena eskatzea exijitu”, bozka bidez aukeratuta daudelako eta berak ez dituelako ordukoaren erantzule lez ikusten. PPko Fran Garatek begi onez ikusten ditu gaitzespenak, baina “errepublikazaleen erruz ere herritar askok sufritu” zutela dio, eta, bere iritziz, ez dute errekonozimendurik jaso.

Azken asteetan bonbardaketen inguruko polemika berpiztu da, Espainian Italiako militar faxistak omendu dituztelako, ejerzitoaren urtemugaren harira. Udaleko bozeramaileen batzordeak omenaldiak gaitzetsi zituen.

## Zergak eta aurrekontuak batera landuko dituzte

### DURANGO M. O.

Martitzeneko osoko bilkuran, 2016rako ordenantza fiskalak eta aurrekontuak batera landuko dituztela iragarri zuen Pilar Ríos alkateordeak (PSE-EE). Orain arte, lehenik zergak eta tasak landu izan dituzte, eta gero aurrekontuak. Abenduan zirriborroa aurkezteko konpromisoa hartu zuen Ríos-ek.

EH Bilduk plazaratu zuen gaia, eta kezka agertu zuen, ordenantzak urtea amaitu aurretik ez onartzeko beldurrez. Eider Uribe: “Gehien daukanak ez du diru sarreren arabera ekarpena egingo, eta gutxien daukanarentzako hobariak zorritzarekin ezingo dira aplikatu”. Herriaren Eskubideko Jorge Varelak kritikatu zuen urriaren 15az geroztik ordenantzen berririk ez dutela. PPko Fran Garatek ere “epea kanpo” gertatzeko arriskua aipatu zuen, baina ez zuen EH Bildu babestu.

Goiztidi Diazek EH Bilduri eta Herriaren Eskubideari erantzun zien eurek izan zirela zuzenketak berandu aurkeztu zituztenak.



EH Bilduko zinegotziak, Lariztorren.

# Lariztorre Durangoko Andragune bihurtzea proposatu du EH Bilduk

Pinondoko Andragunearen espazioa txiki geratu dela esan du EH Bilduk

### DURANGO M. O.

Andragunea lekuz aldatzea gura du EH Bildu koalizioak. Hain zuzen ere, Pinondoren ordez, Lariztorre Durangoko Andragune bihurtzea proposatu du. Eider Uribek prentsurrekoan adierazi duenez, “gaur egun dagoen espazioa txiki geratu da”. Erabiltzaileen keketan oinarritu da hori esateko.

Uribek kontatu duenez, Andragunea sortu zeneko sasoi- an,

eraikin propio eta erreferentziala eskatu zuten elkarteek, eta EH Bilduren ustez heldu da hori gauzatzeko momentua.

Dani Maeztuk ere egin du berba prentsurrekoan. Bere arabera, “elkarte feministek begi onez ikusi dute” EH Bilduren proposamena. Hurrengo udal batzordean aurkeztuko dute gaia, eta beste alderdiekin akordioa lortzeko esperantza daukate.

### Turismo bulegoa

Noski, zer gertatuko litzateke Lariztorren dagoen Turismo Bulegoagaz? EH Bilduk Kuru- tzesantu museora lekualdatzea proposatu du. Horrela, museoa- ren ordutegia zabaltzea lortuko dela diote; gaur egun asteburue- tan baino ez da zabaltzen, lau or- duz. Durango Eraikitzen zerbit- zua ere badago Lariztorren, eta hori udaletxean ezartzea egoki ikusten du EH Bilduk.

MATERIAL DE CONSTRUCCION  
**MACOBER**

Eraikuntzarako materiala  
**MACOBER**

Zeramika eta gresa

Eitua Industriagunea, 66 BERRIZ  
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

**hitz** #gomendioak

artekalea, 14 durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

HELDUENTZAT	UME ETA GAZTEENTZAT	MUSIKA
<p>GIDARIAREN OKERRA Gotzon Barandiaran (2015)</p>	<p>XOLA ETA LAPURRA Bernardo Atxaga (2015)</p>	<p>TONETTI ANAIK Jabier Muguruza (2015)</p>



# Deskontu egun berezia egingo dute gaur 42 komertziotan

Dendak Bai elkarteak 'Black Friday' ekimena sustatu du lehenengoz



Dendak Bai elkarteak ordezkariek, astelehenean, prentsaurrekoan.

## **DURANGO** M. O.

Dendak Bai elkarteak sustatuta, 'Black Friday' ospatuko da gaur, lehenengoz, Durangon. Durangoko 42 denda eta Abadiñoko beste bat batu dira ekimenera, eta deskontuak eta promozioak eskainiko dituzte.

Dendak Bai elkarteak Miren Garrastazu teknikariak azaldu duenez, azken urteetan arra-

kasta handia eduki du ekimen honek Euskal Herriko beste hainbat herritan, eta horregatik, Dendak Bai ere bere gain hartzea erabaki du. Herriko bezeroek erosketak herrian bertan egitea bultzatu gura dute.

Denetariko komertzioak izango dira deskontuak eskainiko dituztenak: arropa, oinetakoak, kosmetika, kirolak...

Deskontuak desberdinak izango dira dendaren arabera, %10etik %50erainokoak. Jai giroa sortzeko, batukada bat ibiliko da Durangotik zehar 17:30etik 19:30era bitartean.

Komertzioek ezarritako deskontuez aparte, arratsaldean erosketak %5 merkeago egin ahaliko dira Durango Txartelagaz.

## “Herritar guztiek etxea edukitzea posible da”

### **DURANGO** M. O.

Etxebakoen alde elkarretartzea egin zuten atzo, Caritas eta Etxepel zentroak deituta. Francisco Jose Gil etxebakoak egin zuen berba: “Pertsona guztiek etxe bat edukitzea posible da. Gizarte osoaren betebeharra da”. Gilek Etxepelen laguntza jaso du azken urtean; zazpi hile lehenago geratu zen kalean.



Etxebakoen alde, protesta deigarria egin zuten.

## ‘Berriztarra’ aldatzea, batzordean eztabaidagai

EH Bilduk proposamena eroan du osoko bilkurara

### **BERRIZ** A.U.

Berrizko Udalaren *Berriztarra* aldizkaria aldatzeko proposamena aurkeztu du EH Bilduk azken osoko bilkuran. EAJK kontra bozkatu du, eta gaia batzorde orokorrean lantzeko konpromisoa hartu du Orland Isoird alkateak. PSE-EE abstenitu egin da, oro har aldaketekin ados egon arren, hizkuntza iritzipideen kontra dagoelako.

*Berriztarra* hiru ataletan bereiztea proposatu du EH Bilduk: lehena, udalaren informazioetarako; bigarrena, herritar eta elkarteek euren iritzia emateko; eta hirugarrena, alderdi politikoek euren ikuspuntua elkarbanatzeko. Euskarari ordenan eta luzean lehentasuna ematea proposatu du EH Bilduk. PSE-EEK, ostera, eduki guztia bi hizkuntzetan egotea nahi du.

## Argindar barik orduetan, eguraldiagatik

### **GARAI** M. O.

Eguazteneko euri zaparrada eta haizearen eraginez, Garai-ko herritar gehienak argindar barik egon ziren arratsaldean. Antza denez, arbolaren bat jausi zen argindar sareen aurka. Ondorioz, herrigunea eta goiko auzoak argi barik egon ziren eguerditik gauera arte. Eguraldiaren eraginak Durangaldeko beste leku batzuetan ere igarri zituzten; Durangon, erreka babetu zuten badaezpada.

## ABENDUKO SARIAK



**FORUM SPORT. PULSOMETROA**  
Polar FT1 modelo eta uhala. Iragazgaitza.





**LAPIKO JATETXEA. MENUAK**  
2 pertsonentzako menu berezia igande eguerdirako.





**SAN AGUSTIN. TXARTELAK**  
San Agustin bazkide txartel bat eta San Agustin txikitxartela.





**HITZ LIBURU-DENDA. LIBURUA ETA DISKOA**  
Andoni Urzelainen "Karanbola toxikoak" liburua eta Balerdi Balerdiren "Hegoko lautadaren ertzetik" diskoa.





**SALTSAN. EGUVEN SALTSAN**  
Kalitate handiko produktuen dastaketa, 2 pertsonentzat. 4 egile-pintxo, 2 ardorekin lagunduta.





## ABANTAILAK

- > Deskontuak Durangaldeko zein eskualdez kanpoko hainbat saltokitan.
- > Deskontuak Anboton argitaratzen diren iragarki labur ordainduetan eta eskeletan.
- > Hilero egingo diren zozketetan parte hartzea.
- > Durangaldeko egutegia eta turismo-gida opari.

**anboto**  
komunikabideak

[www.anboto.org](http://www.anboto.org)  
[lagunak@anboto.org](mailto:lagunak@anboto.org)

 @anboto

 Anboto Komunikabideak

Tel.: 946 816 558





Enpresarako sarreraren aurrean karpa bat jarri dute eta hantxe egoten dira.

## Cemosa enpresan greba mugagabea hasi dute

Enpresa hitzarmena sinatzeko “borondaterik eza” leporatu diote zuzendaritzari

**ATXONDO J.Derteano**

Cemosa enpresako langileek greba mugagabea hasi zuten astelehenean. Enpresako hitzarmen berria adosterako orduan “borondaterik eza” leporatzen dio enpresa batzordeak zuzendaritzari.

Enpresak dituen 160 bat langileetatik 137 batu ziren batzordeak deitutako batzarrerara eta gehiengoak grebaren alde egin zuen: 99 alde, 37 kontra eta boto zuri bat.

Enpresa batzordeak idatzi baten bidez jakinarazi duenez, “saiakera asko eta askoren ostean, enpresaren blokeoak gre-

ba hasteko erabakia hartzera eramane gaitu langileok”. Enpresaren egoera ekonomikoa zein merkatu kokapena “bikaina” den arren, kudeaketa “prekari-zazioan” oinarritu dutela salatu dute.

Errelebo kontratua daukaten langileak “finko bihurtzea” eta ordezkapenak “Lanbideren bidez eta enpresa kontratuarekin kudeatzea” dira langileen aldarrikapen bi. Enpresaren antolaketari dagokionez ere, “argitu eta adostu” beharreko alderdiak ikusten dituzte.

Horrez gainera, “amiantoa- rekin, hipoakusia aukerekin eta

baldintza termo-higieniko kas-karrarekin lan egin izan duten langileekiko protokoloak ados-tea” da beste eskaera bat.

Enpresaren kanpoaldean, sarrera nagusiaren aurrean, karpa bat jarri dute langileek. Asteon EH Bilduko legebiltzar-kide Iker Casanova bertaratu da egoeraren berri jakiteko, eta euren eskaerak Legebiltzar-rerara eramateko asmoa azaldu du. Bitartean, atzo enpresako zuzendaritzak “negoziatzeko asmoa” agertu zuela azaldu du Jose Mari Ugalde komiteko presidenteak. Atzo arratsaldean batzartu ziren alde biak.

## Elkarte eta norbanakoak Iurretapedian batu dira

Wikipedian Iurretako atala osatuko dute

**IURRETA J.G.**

Wikipedian Iurretako udale- rriaren informazioa eta ezau- garriak ahalik eta egokien idazteko jaio da Iurretapedia proiektua. Ekimen honen bi- dez, herriko elkarte, eragile, instituzio eta norbanakoek Iur- retari dagokion atala egunera-

tuko dute. Horretarako, lehenik eta behin, Wikipedia zer den eta zelan funtzionatzen duen azal- tzeke ikastaroa antolatu dute, asteon, Ibarretxe kultur etxean. Abenduaren 12an, trebakuntza jaso duten elkarteetako kideek eta norbanakoek Iurretapedia osatzeko aukera izango dute.

## Ludoteka berria ireki dute, espazioa irabazita

**IURRETA A.B.**

Ludoteka berria ireki dute asteon Iurretan. Ia bibidertu egin dute aisialdirako espazioa zerbitzua hobetu guran, eta, “aukera gehiago” eskainiko dituelakoan daude udal ardu- radunak: “Egunerokoaz aparte, dinamizatzeko aukera ere izan-

go dugu. Gabonetan, inauteri- tan... tailerrak antolatzea izan- go dugu”. Hamar urte arteko neska-mutilek erabili dezakete, beti ere, heldu batek lagunduta.

Ibarretxe kultur etxean jarraitzen du, baina, Kzguna zegoen tokira lekualdatu dute. Ia 40 metro koadro hartzen ditu: “Argia sartu dadin hormetariko bat bota da, haren ordezkristala jarri, eta jostailu berriak esku- ratu ditugu”, azaldu du Iñaki Totorikaguena alkateak. 14.000 bat euro inbertitu dituzte.



Astelehenean zabaldu zuten lekua ia bibidertu duen ludoteka berria.

## Zapatuero aisialdirako eskaintza bihartik aurrera martxan

**MALLABIA Jone Guenetxea** Bihar, azaroaren 28an jarriko dute martxan ume eta gazteen aisialdia bultzatzeko Zapa- tuero ekimena. Ekimenaren arduradunek Kontzejuzarrean

Ekimenaren arduradunek Kontzejuzarrean hilean behin jarri dute Zapatueroaren hitzordua

hilean behin jarriko dute hitzordua. Jolas kooperatiboak, tailerrak, irteerak eta beste hainbat ekintza antolatuko dituzte. Ume eta gazteak talde bitan banatuko dituzte, 6-11 eta 12-16 urte arteko parte-hartzaileekin.

## Andresa Landa pareko kalea berriuko dute

Zorua aldatu eta argiztapena hobetuko dute

**OTXANDIO J.Derteano**

Datozen hiletan Samartoi ka- leko zati bat guztiz eraberrituko du Otxandioko Udalak. Andres Landa etxearen aurretik igarotzen den kale zatia da kon- ponduko dutena, Artekale eta Ospital kaleen artean dagoena. Bertan hainbat lan egingo di-

tuzte. Hasteko, gune horretako zorua eraberritu egingo dute. Lan horiekin batera, zorua oin- zekoentzat egokitzeko lanak ere burutuko dituzte. Azkenik, zorua amaitzen dutenean, gune arteko argiztapena handitzeko hobekuntzak ere gauzatuko dituzte.



Andresa Landa aurretik igarotzen den Samartoi kalea.

## Gaur hasiko dituzte jaiak Gaztetxean ere

Mor More taldearen kontzertua izango da gaur

**ZALDIBAR I. Esteban**

Gaur gauean ekingo diote Zal- dibarko Gaztetxeko kideek San Andres jaietarako prestatu du- ten egitarauari: Mor More Za- rauzko laukotearen kontzertua izango da, 22:00etan.

Polekeleke eta Bad Sound System taldeen kontzertuak antolatu dituzte, biharko, Zaldibarko Gaztetxean

Bihar ere hainbat ekintza izango dira, Zaldibarko Gazte- txean. Desafio bitxiak jokatuko dituzte, esaterako, 12:00etatik aurrera parte hartzera hurreraz- ten direnek: oliba-hezur jaurti-

ketan eta limoi janean zein bai- no zein jardungo dira. Oliba eta limoiekin ahobizarra kenduta, bazkaritarako elkartuko dira Zaldibarko Gaztetxean.

Musikagaz jarraitu eta ama- ituko dute zapatukoa: Polekele- ke elektrotzaranga ibiliko da 18:30etik aurrera kalea musikaz giroten, eta Skaleak eta Bad Sound System taldeek joko dute, 23:30ean, gaztetxean.

Joan zen asteburuan abiatu zuten neguko jaien egitaraua Zaldibarren, neguko azoka eta San Andres tiro txapelketa- rekin. Hain zuzen ere, Arku Taldekoek jaurtiko dute, gaur iluntzean, San Andres jaien txa- pligua. Ondoren, Koral elkarte- ko txistulari eta buruhandiekin kalejira egingo dute.



# Pediatra berria euskalduna izatea eskatu du alkateak

Elorriko pediatra jubilatzean dago, eta ordezkioak euskara jakitea gura dute



Elorriko anbulatortira pediatra berria etorriko da laster.

**ELORRIO** Markel Onaindia Elorriko pediatra laster jubilatuko da, eta bere partez beste bat ipiniko du Osakidetzak. Baina, herritarren artean kezka bat zabaldu da: pediatra berri horrek euskaraz jakingo ote duen. Horren harira, arazoari aurrea hartu, eta eskaera ofiziala egin du Idoia Buruaga Elorriko alkateak. Hain zuzen ere, Osakidetzako Barrualde-Galdakao zonaldeko zuzendariari pediatra be-

rria euskalduna izatea eskatu dio, gutun bidez.

Euskararen normalizazioaren bidean, Buruagak aparteko garrantzia eman die umeentzako zerbitzu publikoei: “Etorkizunean herri euskalduna izaten jarraitu nahi badugu, bizitzaren hasieratik ekin beharko diogu bide horri”.

**D ereduko ikastetxeak** Elorrio herri euskalduna de-

la esan du Buruagak, eta hori datuekin islatu gura izan du gutunean. 2011n Jaurlaritzak egindako ikerketaren arabera, elorriarren %61 da euskalduna, eta beste %20 euskara ulertzeko gai da. Gainera, ikastetxe guztiak D eredukoak direla nabarmendu du alkateak.

**Pediatrari eskerrak**

Bestalde, erretiroa hartzean dagoen “pediatra estimatuaren” lana eskertu du Buruagak.

# Plaka frankistak kendu ditu Ernai gazte taldeak

**ELORRIO** Markel Onaindia Ernai erakundeko hainbat gazte elorriarrek herriko etxe bazuetan zeuden plaka frankistak kendu dituzte, eta bideo baten erakutsi dute ekintza. Frankismoan eraikitako etxe sozialetan zeuden plaka horiek. Plakak zeuden lekuan, *Bagoaz* lemadun pegatinak ipini dituzte, gainera.

Izan ere, Ernai erakundea kanpaina bat garatzen dabil

lema horregaz, Espainiatik eta Frantziatik irten eta Euskal Herriarren independentzia aldarrikatzeko helburuagaz. Datorren abenduaren 6an, Espainiako Konstituzioaren egunean, manifestazioa egingo dute Durango, 19:00etatik aurrera, Durangoko Azokaren testuinguruan. Plakak kendu dituzten gazte elorriarrek ere manifestazio horretan parte hartzeko deialdia zabaldu dute.



Elorrioren kendutako plaka batzuk.

# Urbanizazio lanak amaitu dituzte Betarraganen

6.000 metro karratu gune berdeekin hornitu dituzte

**ZORNOTZA** J.Derteano

Betarragane inguruko urbanizazio lanak amaitu dituzte. Asteon eman dute azken faseko lanen berri. 8.000 metro karratuko eremuari eragin diote lanek. Oro har, aparkalekuak gehitu —19 plaza—, Karmen kaleagaz lotzen duen bidegorria amaitu, azpiegiturak hornitu eta orotara 6.000 metro karratu hartzen duten gune berdeak atondu dute.

Betarraganeko lanek denera lau milioi euroko inbertsioa izan dute; horietatik 800.000 euro erabili dituzte azken fasean. Gune horretako zelai baten

aurreikusita dago etorkizuneko Urgozo kiroldegi berria. Gainera, inguru horretan dagoen txakurrendako gunean bidegorria amaitu dute eta esertzeko banku bi eta zaborrontzia jarri dituzte, erabiltzaileen eskaerei erantzuteko.

Aurrera begira, Betarragane Karmen kaleagaz lotuko duen autoendako bidea amaitzea falta da. Asmo hori bultzatuko dutela adierazi du Andoni Agirrebeitia alkateak, baina ez dago udalaren esku. Lehenengo promotore pribatuek sektore horren garapena egin behar dute.



Betarragane inguru; kiroldegia eskumaldeko zelaietan dago aurreikusita.

# Mahai jokoaren gaineko jaialdia asteburuan Zelaietan

**ZORNOTZA** J.Derteano

Zapatuan eta domekan Mahai Jokoen 6. Jaialdia egingo dute Zelaieta Zentroan. Herritar orori zuzendua, ekitaldiak mota honetako aisialdia sustatzea du helburu.

Mahai-jokoak entretenitzeko ez ezik adimena lantzeko eta talde lanean sakontzeko tresna ere badirela erakutsi gura dute aurretan. Bide horretan, ‘joko serioa’ deitutako dinamikaren onurak ezagutzeko aukera egongo da. Mahai-jokoek, besteak beste,

ikasketa prozesua zein estimulazio kognitiboa hobetzeko elementu gisa zelan erabili daitezkeen azaltzeko hitzaldi bat eta tailer bi antolatu dituzte. Tailerretan, arreta lantzeko eta taldean lan egiteko dinamikak landuko dira.

Oro har, adinaren arabera banatutako lau gune izango dira Zelaietan, goizetik arratsalderara: 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Egitarau osoa [www.grupohal.com](http://www.grupohal.com) webgunean jakin daiteke.

**Arrike**  
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango  
Tel.: 946 201 893  
Faxa: 946 816 403

**URTXINTXA**  
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

Bulegorako zigiluak  
Fotolitoak

**Betikoak**  
flexografia

946 202 241  
Bixente Kapanaga, 9  
48215 IURRETA

**BODEGUILLA**

**TRANA-MATIENA**  
Tel.: 94 681 43 85



## Durangaldeko 86 emakumek salatu dituzte aurten eraso sexistak

Eguaztenean emakumeenganako indarkeriaren aurka protesta egin zuten



Durango eguerdian burutako elkarretaratzea.

**DURANGALDEA M. O.**

Durangaldeko 86 emakumek salatu dituzte aurten eraso sexistak, eta eraso horietatik 41 Durango izan dira. Durangoko Udalak emandako datuak dira, Gizarte Zerbitzuak, Ertzaintza eta Osakidetzatik eratorrita. Hain zuzen ere, Durangaldeko kale, eskola eta udalak indarkeria matxistaren aurkako mezuak bete ziren eguaztenean, azaroaren 25eko nazioarteko egunaren harira.

**Protestak herririk herri**

Eguaztenean, Durango, esaterako, eguerdian elkarretaratzea egin zuten, eta, iluntzean, jende ugari batu zuen Plataforma Feministak deitutako manifestazioak. Protesta ekitaldiak egin zituzten baita ere Abadiñon, Berrizen, Elorrioren, Iurretan, Mallabian, Zaldibarren eta Zornotzan.

016 da eraso sexistaren aurrean laguntza eskatu ahal izateko telefono zenbakia.

## 90 metro koadro handitu dute Zelaietako jubilatuen etxea

**ABADIÑO I.E.**

Erabilera anitzeko gela berri bi atondu ditu Abadiñoko Udalak, Zelaieta auzoko jubilatuen egoitza. Bost ordenagailu eta proiektore bat ipini dituzte geletako batean; eta mahaiak, aulkiak eta apalak, beste gela. Ikastaroak edo berbaldiak antolatzeko espazio handiagoa izango dute, beraz, jubilatuek, aurrerantzean. Gobernu taldeak azaldu duenez, bestalde, komun eta biltegi berri bana ere egokitu dituzte.

Orain hiru urte arte posta bulegoak hartzen zuten 90 metro koadroko espazioa baliatu dute jubilatuen egoitza handitzeko, eta gobernu taldeak azaldu duenez, 55.000 euroko inbertsioa egin du udalak.

## Urteko 365 egunetan euskaraz bizitzeko deia zabalduko dute

Guka euskaltzaleen bilguneak mosaikoa eta aulkien jolasa antolatu ditu

**DURANGALDEA M. O.**

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko da abenduaren 3an, eta egun zehatz horretatik harago, urteko 365 egunetan euskaraz bizitzeko deia zabalduko dute euskaltzaleek. Durango, Guka euskaltzaleen bilguneak

mosaikoa antolatu du 18:00etarako, Andra Mariko elizpean. 18:30ean aulkien jolas erraldoia egingo dute, eta 19:00etan kantu-poteoa hasiko dute. Aulkien jolasa ikastetxei ere proposatu die Gukak, eta denda atarietan aulkien ipintzeko deia egin du.

Bestalde, Zaldibarren, herritarrek euskararen inguruan egindako bideoa proiektatuko dute, 19:00etan, udaletxe atarian. Berrizen, Joseba Irazo-kiren kontzertua egongo da 22:00etan. Aurreko egunetan ere egingo dituzte ekitaldiak; gaur pelikula 21:45ean, domekan bertso-trama 12:30ean, eta eguaztenean Arrierrekari buruzko bideo aurkezpena 19:30ean.

Mallabian, Maialen Zubeldiaren ipuinekin gozatu ahalko dute umeek, 10:00etatik aurrera.

Zornotzan abenduaren 2an, 19:30ean, *Beltzean mintzo* dokumentala eskainiko dute Zelaietan. Hilaren 3an, 19:00etan, bertso karikatura emanaldia hasiko dute Tomasatik Iratxe Ibarra eta Eneko Abasolo bertsolariarekin eta Rufo marrazkilaria gaz.



Iaz Berrizen egindako mosaikoa.

## Bosgarren gazta, ardo eta ogi azoka egingo dute abenduaren 6an

**IZURTZA J.Derteano**

San Nikolas Egunean, abenduak 6, domeka, Gaztardogi Azoka antolatuko du Izurtzako Udalak. Goizeko 11:00etatik eguerdiko 15:00ak arte egongo da aukera aurten bosgarren aldia betetzen duen azoka bisitatzeko.

Urtero legez, herriguneko pilotalekuko luze-zabalean askotariko postuak ipiniko dituzte, eta izarrak izango dira gaztaren, ardoaren eta ogiaren gaineakoak. Durangaldeko ekoizleak izango dira postuetako askotan, baina kanpokoek ere izango dute euren tokia azokan.

Herrigunetan sortu ohi den giroa osatzeko, jan-edanerako aukerarik ez da faltako pilotalekuaren eta plazaren inguruan.

## Hontzakoak, politikariekin "penatuta"

**MAÑARIA M. O.**

Astelehenean lehenengo urterreneko ekitaldia burutu zuten Mañariko Hontza museoan, eta Durangaldeko udal ordezkari gehienak ez ziren agertu, ezta Aldundiko eta Jaurlaritzako kultur ordezkariak ere. Jarra hori "penagarria" dela uste du Enrike Huertak, museoko presidentea: "Penagarria da gonbidatuta egon ziren gehien presentzia ez izatea". Beste museoetako ordezkarien falta ere igarri zuen Huertak.

Bizkaian dagoen natur zientzien museo bakarra da Hontza, eta lehen urte honetan 2.500 lagun inguruk bisitatu dutela azaldu dute arduradunek. Leire Huerta zuzendaria baikor agertu da museoaren martxagaz, eta aurrerantzean bisita kopuruak handitzea espero dutela azaldu du.

**ALBERDI**  
HARATEGIA

Askatasun etorbidea, 1 DURANGO · Tel.: 946 817 658  
Sabino Arana, 1 ZORNOTZA

ETXEKO TXORIZO  
ONENAREN SARIA

2014-2015  
VILLA DE BILBAO

ODOLOSTE  
ONENARI SARIA

2013 BIZKAIKO ODOLOSTEEN  
MUNDUKO TXAPELKETAKO  
IRABAZLEA

2014 ELORRIKO  
BUZKANTZA JAIKO  
ODOLOSTE ONENA





Gukako kideek Pinondon ateratako argazkia.

## Zertarako aulkiak, pentsatzeko, entzuteko, erabiltzeko ez badira?

Jolas egingo dugu gure aulkiarekin, gure hizkuntzarekin, euskararekin...

### > GUKA

Egunero-egunero behar ditugu aulkiak, erabiltzen ditugu aulkiak. Aulkiak baliatzen ditugu lanean, aulkiak ikasteko, aulkiak jolasteko. Aulkiak ematen digu pentsatzeko behar dugun oinarria, aulkiak ematen digu tabernan lagunekin politikaz eztabaidatzeko erosotasuna, edo aulkiak ematen amamaren kontuak entzu-

teko berotasuna.

Zertarako balio dute aulki bakarti eta hutsek? Zertarako balio dute museo eta liburutegietako hautsez beteriko aulkiak? Pertsonok egiten ditugu aulkiak erabilgarri. Eta, gutako pertsona bakoitzak aulki ugari eduki ditzake, baina aulki batzuk gu baino ez. Bidean denetarik aurki dezakegu: aulki handi zein txikiak,

aulki zaharkitu zein modernoagoak, aulki ederrak zein ederragoak. Ez ditugu aulki berdin-berdin bi aurkituko, baina guztiak dira baliozko.

Aulkiak elkarbanatu eta trukatu ditzakegu; beste aulki batzuetan ere jar gaitezke, baina guk gure aulkietatik begiratu gura diogu munduari. Eta, hori da, hain zuzen ere, udal-agintariei eskatzen

dieguna: besaulki erosoetatik altxatu eta eser daitezela gure aulkietan; herritarrak euskal aulkietan esertzeko lan gehiago egin dezatela, eta, udal-erakundeetan gure aulkiei dagoen lekua eman diezaietela.

Gu, bitartean, aulkitik altxatuko gara, aulki gainean zutik jartzeko. Harro. Eta higu arte erabiliko dugu aulkiak, apurtzen den heinean konponduko duen jendez inguratuta. Eta jolas egingo dugu gure aulkiarekin, gure hizkuntzarekin, euskararekin, elkarrekin.

365 egun Euskal Herrian euskaraz.

GUKA

### SEI HANKAKO MAHAIA

**FRAN GARATE**  
PP



#### Jo ta ke, irabazi arte!

Izugarri atsekabetzen nau ino-lako zentzurik ez duen gai honi buruz idatzi beharrak. Gure egunerokotasunean dago, ordea, eta arreta osoa jarri behar diogu. Urtean egun bat dugu, azaroaren 25a, jabetzeko zer garrantzitsua den emakumeen kontrako indarkeri mota guztien aurka lan egitea, haien kontra borrokatzea eta garaitzea. Denok gaude ados; hori urte osoan egin beharrekoa da. Jo ta ke, irabazi arte, egunero.

PPk bere konpromisoa bereetsi gura du, biktimak laguntzeko eta genero indarkeria mota guztietatik aske egongo den gizarte bat eraikitzeko. Gizarte guztia inplikatzeko gura dugu; gaitz sozial hau errotik kentzeko, eta gazteenek bortizkeria jarrerak izatea saihesteko hezkuntza jaso dezaten.

Biktimek salatzea erraztu behar dugu. Horretarako, doako justizia dago, biktimek salaketak jarri ditzaten, euren baliabide ekonomikoak direnak direla. Emakumeak gehiago eta hobeto babestu behar dira.

Egunero bide horretan lan egiteko konpromisoa berresten dugu; indarkeria bako gizarte baten alde, giza eskubideak eta gizon eta emakumeen berdintasuna errespetatuko dituen gizarte baten alde.

Urrun heldu gura dugu; urrun esan dut, bai. Heldu beharreko lekura heldu gura dugu: babestu edo defendatu beharra duten biktimak egongo ez diren egoerara, errealitate nazkagarri honek eragindako kasuei buruz berba egiteko motiborik egongo ez den egoerara. Horra heltzeko lan handia egin behar dugu, egunero.

Ziur gaude, lortuko dugu.

*\*Erredakzioan itzulia*

### DURANGALDEA ASTEON

#### Auto batek harrapatuta hil da 77 urteko gizona

**ELORRIO >** N-636 errepidearen Elorrioko saihesbidean, Durangorako noranzkoan, jazo zen ezbeharrak, atzo, 08:45ean. Auto batek pertsona bat harrapatu zuen, eta larri zauritu. Anbulantzia bertaratu arren, harrapatutako pertsona hil egin zen. Erztzaintzak jakitera eman zenez, 77 urteko elorriarra da hildako gizona.

#### Ur-hornidura sarean obratan, Larrinagatxun

**DURANGO >** Larrinagatxu auzoko ur-horniketak hodiaren berriztatze lanak hasi ditu Durangoko Udalak, azken urteetan edateko uraren sarean gertaturiko matxurak konpontzeko. Obrak abenduaren 16rako amaitzea aurreikusiko du Durangoko Udalak, eta 34.466 euroko inbertsioa izango duela kalkulatu du.

#### Nagusien XXIV. Aste kulturala, Iurretan

**IURRETA >** Goiuriko Ama elkarteak antolatuta, Aste Kulturala ospatuko dute, abenduaren 8tik 12ra, Iurretan. Abenduaren 12an bazkideen eguneko bazkariagaz amaituko dute aurtengo edizioa, baina horren aurretik, berbaldi bat eta Izar Gaztea abesbatzaren emanaldia ezezik, bingoa eta karta-jokoa ere edukiko dituzte.

### IRITZIA

#### Hau ez da gure bakea

Emakume bezala sozializatuak izan garenok, oro har, beldur dosi handiz elikatu gaituzte txiki-txikitatik. Ez gaituzte jantzi beldurra erantzun bilakatzeko gaitasunez.

Oso eroso eta komenigarria izan daiteke eraso sexisten kontrako aldarrikapenekin bat egitea, lanketa formal eta politikoki zuzenak egitea, «feminista naiz» etiketa jartzea, eraso beti kanpoan kokatuta, nor bere burua zalantzan jarri gabe eta errora jo gabe. Hemen inork ez du alerta egoera deklaratzeko astero-astero bortzaketa salaketak prentsan albiste ditugunean edo sei emakume hiltzen dituztenean Euskal Herrian urte baten.

Emakumeok erasoaren aurrean biktima gisa jarduten dugun bi-

tartean, jendartearen ez da arazorik. Baina ahalduntzean, erantzuten dugun momentuan, gure erantzuna zalantzan jartzen da. Gu erantzuteko eskubidean berresten gara, gure bizitzak jokoan daudelako. Baina, zein da ordea, jendarte honen (eta bere botere harremanen) parte diren beste subjektuen zeregina? Bada garaia sistema honek sortzen duen beldur eta biolentzia arduraz kudeatzeko, erradikal-tasunez; hots, arazoaren errora jotzen, norberaren jardunetik gure praktika politiko kolektiboetara. Ardura lekualdatu, banatu. Borroka honetan apustu garbiak egiteko garaia dugu, bakoitza bere eremutik, norabide berdinean.

Bakearen aroa bada, izan dadin denontzako bake garaia.

✉ [astekaria@anboto.org](mailto:astekaria@anboto.org)  
asteartea 17:00ak arteko epea

#### Zure iritzia, gutuna edo fotodokumentazioa helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

#### DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.



## **> Berbaz**

Eztizen Telletxea Lopez | Gehilan 2000ko kidea | Santurtzi, 1990



“*Tratu txar psikologikoak bereiztea geroago eta zailagoa da*”

“*Geroz eta indarkeria sinboliko gehiago ikusten dugu*”

**Sare sozialak jazarpenerako tresna bihurtu dira.**

Sare sozialek besteenganako kontrola sustatzen dute. Hala ere, kontua era egoki baten erabiltzen ikastea da; hezkuntza arazoa da.

**Tratu txar psikologikoa genero indarkeria dela argi dugu? Zer biolentzi mota daude?**

Teorian, argi daukagu, baina tratu txar psikologiko horiek bereiztea gero eta zailagoa egiten da. Gero eta biolentzia sinboliko gehiago ikusten dugu edonon: jokoetan, iragarkietan... Horri tratu txarrak deitzea nahiko zaila izan daiteke. Bikote harreman baten bost indarkeria mota egon daitezkeela esan ohi dira: psikologikoa, fisikoa, sexuala, ekonomikoa eta soziala.

**Jazarpena jaso duen pertsonak bere erasotzaileagaz jarraitzeko arrazoiatariko bat izan daiteke tratu txar psikologikoa?**

Hori da. Erasotzaileak modu psikologikoan suntsitzen du biktiman. Horregatik, emakumeen buruko osasunean eragiten du indarkeria mota honek; ondoez emozionala eragiten du. Tratu txar psikologikoak pairatu dituztenek antsietatearekin eta depresioarekin lotutako sintomak dituzte, baita autoestimua baxua eta eguneroko bizitzara moldatu ezina ere. Hori dela eta, euren segurtasun sentimenduek okerrera egin dute, eta mundua segurtasunik gabeko lekua bihurtzen da. Beraz, zaila da egoera horretatik ateratzea, baina atera daiteke.

**Zer baliabide ditu pertsona batek egoera horretatik irteteko? Salatzea da hoberena. Biktimak merezi dituen baliabideak jaso ahal izateko, eta gizona zigortzeko.**

# “*Profilak ahaztu; izan dezakezun lagun maitagarriena erasotzailea izan daiteke*”

Genero biolentziaren inguruko berbaldia emango du Telletxeak Mallabian, abenduaren 2an

**> BERBAZ** Aitziber Basauri  
Genero indarkeriaren inguruan hainbat estereotipo eta ideia faltsu behin eta berriro errepikatzen dira ahoz aho zein hedabideen bidez. Ildo horretatik, Eztizen Telletxea Gehilan 2000ko kideak indarkeria sexistaren inguruko argibideak emango ditu Mallabiko Kontzejuzarrean, abenduaren 2an, 20:00etan. Nahikari emakume elkarteak gonbidatu du.

Genero biolentziaren inguruan badago profil konkreturik? Non sortzen da indarkeria? Biolentzia eguneroko gaia da, edozein tokitan topatzen dugu: bideo-jokoetan, telebistan, literaturan, musikan... Emakumeen aurkako indarkeria etxeko indarkeria baino askoz zabalagoa da, eta leku anitzetan ager daiteke: familiaren edo harreman afektiboen esparruan, lantokietan, ikastetxeetan, eta erakundeetan ere bai, besteak beste.

Beste pertsona batekiko dependentziak zer eragin dauka

norberarengan? Zer lotura du genero biolentziagaz?

Emakumeak erasotzailearekiko dependentzia afektiboa, soziala (indarkeria sozialaren ondorioz sortutakoa) edo ekonomikoa izan dezake. Eta indarkeriarekin lotura dauka, noski, erasotzailearen estrategiaren barruan sartzen delako. Biktimak harengan daukan menpekotasun hori mantentzen baldin badu, salaketa saihestuko duela uste du.

Nola atzeman daiteke indarkeria matxista? Profil zehatz bateko emakumeak dira biktima? Profilak ahaztu; biktimek ez dute inolako profilik izaten. Aztertu ahal ditugun ezaugarriak indarkeriaren ondorioak dira, ez haren aurrekoak. Eta erasotzaileei buruz, zer esan; manipulatu itzelak dira, kalera irten eta mozorrotzen dira. Gure lagun maitagarriena ere erasotzailea izan daiteke.

Tratu txarrak ematen dituen pertsona batek inoiz utzi diezaike erasotzaile izateari? Gai

“*Biolentzia eguneroko gaia da. Edozein lekutan topatu dezakegu biolentzia*”

“*Erasotzaileak psikologikoki suntsitzen du biktima*”

honek eztabaida handia sortu du.

Terapiak eta tratamenduak daude haien eragin horien eraginkortasuna nahiko eztabaidagarria da. Terapietara “era boluntarioan” joaten dira, bai, baina helburua kartzela saihestea edo zigorra gutxitzea izan ohi da. Lan handia daukagu esparru honetan; izan ere, oso garrantzitsua da erasotzaileekin egiten diren terapiak benetan

eraginkorrak izatea, etorkizunean agertu ahal diren kasuak ekidin ahal izateko.

**Etxean ikusitako jarrerak eragin zuzena dute pertsona bat etorkizunean erasotzaile izateko?**

Eragina dauka, bai. Behin eta berriro emakumeak gutxien dituen testuinguru baten ikastea oso arriskutsua da. Horregatik, nahitaezkoa da haurren bileragile sozializatzaile nagusiek, eskolak eta familiak, ikuspuntu feminista izatea.

**Gazteen arteko bortizkerian jarririk da lupa. Gazteak jabetzen dira indarkeria horretaz?**

Berdintasunaren irudikerian bizi gara. Gizartearen ustez, gizonak eta emakumeak gaur egun eskubide berdinak ditugu. Emakumeak ikasi egiten dugu, dibortziatu ahal gara, lan egiten dugu... eta horrek lasaitasuna sorrarazi du. Horregatik, gazteen ustez, genero indarkeria bikote gutxi batzuen arazoa da; baina ez da horrela, arazo sozial larria da hau.



HAN | Nerea Lersundi, Karlos Gomez, Miguel Leon eta Gorka Molero

## “Zuzendari artistiko bat ez izatera, laurok sortu eta adosturikoa da ikuskizuna”

Elorrion, ‘2634’ ikuskizun bereziagaz, aurkeztuko du Han taldeak urrian kaleratu zuen disko berria

**> MUSIKA** Itsaso Esteban

Zer osagai ditu bihar Arriolan eskainiko duzuen ikuskizunak?

**Karlos Gomez:** Hasiera batean musika, bideoa eta antzerkia uztartzea pentsatu genuen, baina azkenean erabaki dugu antzerkian ez sartzea. Edozelan ere, hasierako ideiarekin jarraitzen dugu: bakoitza bere kontura jotzen dabilen musika talde bat aurkezten dugu, musika joaz.

**Nerea Lersundi:** Ikuskizunak bi parte dauzka: 20 minutu inguruko ikusentzunezkoa, eta kontzertu bat, irudi proiektzioagaz eta argiztapen bereziagaz.

Zenbat denbora daramazue ikuskizuna prestatzen? Zela-koa izaten ari da prozesua?

**N.L.:** Ideia lehenagotik erabili dugu buruan, baina buru-belarri lanean azaroan hasi gara. Oso intentsoa izaten ari da. Zuzendari artistikorik ez izatera, lauron artean sortu eta adosturikoa da ikuskizuna: proba eta iritzi askogaz joan gara ikuskizunari forma ematen. Indibidualizaziora gero eta gehiago garamatzen bizimodu honen inguruko kezka da ikuskizunaren oinarrian dagoena.

**K.G.:** Oso lagungarri egin zaizkigu aktore birentzat eta gero Arriolako lankideeztat egin di-

tugun pase bereziak ere. Euren inpresioek asko lagundu digute gauzak perspektibagaz ikusten.

Ikuskizunaren izenburuak zeri egiten dio erreferentzia?

**Gorka Molero:** 2634 urteari, etorkizunari, egiten dio erreferentzia. Etorkizunean bizi diren bi pertsonak gaur egunagaz konexio bat egitea lortzen dute, eta ikusten dutenagaz jolasten dugu: geu gara ikusten dutena.

Jende askoren kolaborazioagaz diharduzue, ezta?

**N.L.:** Lagun artean egin dugu lan, eta oso-oso eskertuta gaude kolaboratu duten guztiarekin. Pello Salaberria eta Itziar Bastarrিকা ibili dira bideogintzan, Iker Nafta jardun da estilismoan, eta Urko Rekondo eta Iñigo Aranbarri aktore lanetan. Argiztapenean Jon Zubiak eta soinuaren Miguel Alonsok dihardute.

Berezia izango da biharkoa?

**K.G.:** Jende asko gu garelako etorriko da biharko kontzertura: lagunak, familia...

**G.M.:** Baina egia da Elorrion ikuskizuna berba aipatzen duzun momentuan espektatiba sortzen dela. Nire ustez, biharkoa zerbait berezia izango delako ere erantzun du jendeak.



Argazkia: Itziar Bastarrিকা.

Printzipioz emanaldi honetara mugatuko da?

**K.G.:** Gustatuko litzaiguke beste emanaldi batzuk ere eskaini ahal izatea, nahiz eta, familia eta lana dela eta, kontzertuak lotzea oso zail egiten zaigun...

**G.M.:** Lan handia egin dugu, eta ikuskizuna prest daukagula aprobetxatuta, inguruko herrietako aretoetan behintzat, gura genuke, bai, erakutsi.

Hau bezalako ikuskizun multidiziplinarrean lehenengoz diharduzue?

**K.G.:** Gorka eta biok *Mokaua* proiektuagaz ibili ginen orain urte batzuk; musikaren eta bideoaren arteko interakzioa handiagoa zen hartan.

Agenda zelan daukazue?

**G.M.:** Biharkoaren ostean, Durangoko Azokako Ahotsenean eta Arrasaten jotzeko hitzorduak dauzkagu. Eta hurrengo urterako ere jaso ditugu proposamen batzuk... Ez genuen horrelako erantzunik espero, eta oso pozik gaude.

Orain arteko kontzertuetako sentsazioak zelakoak izan dira?

**K.G.:** Oso onak. Talde berria gara, eta jo ditugun bi kontzertuetan jendea etorri da gu entzutera, eta hainbat disko saldu ditugu, gainera.

Diskoagaz ere pozik zaudete?

**K.G.:** Argi geneukan Txapekin grabatzea nahi genuela, laguna dugulako, eta oso pozik gaude. Oso azkar grabatu genuen, baina dena atera zen oso ondo.

**G.M.:** Hirurok batera grabatu genuen musika, eta horrek denbora asko aurreztea ahalbidetu zigun. Zuzenean zer garen plasmateza gura genuen, esentzian garena islatzea.

Zelan deskribatu Han taldeak egiten duen musika?

**Miguel Leon:** Indie-rocka egiten dugula diote adituek, eta berrira ondo egiten duenez, pozik hartu dugu etiketa hori ere.

Gitarrak badauka pisu berezi bat kantuetan...

**M.L.:** Molerok ez dizu esango, baina, nik uste, taldeari pertsonalitate gehien ematen dion

gauzetako bat dela bere gitarra. Gehienetan bere ideietatik abiatzen dira gure konposizioak. Txarrik eta nik base erritmikoa ipintzen dugu, baina Moleroren gitarrak eraman gaitzan uzten dugu, eta gero Nerearen ahotsak definitzen du taldearen soinua.

**G.M.:** Ideia bat lokalera eramaten dudanean, hiruron artean ematen diogu kantari forma musikala, nahiko modu naturalean. Nerearen letra eta ahotsa batzen zaizkigu gero.

Abestietan kontaktzen dituzuen istorioek ere ematen diote Han taldeari izaera berezia...

**N.L.:** Bai, beharbada, gure ingurune honetan orain arte gutxitan azaleratu izan diren gaiak direlako letretan lantzen ditugunak. Bederatzi kanta daude diskoan, gehienak neuk eta Gorkak idatzitakoak, baina beste hainbat nire lagunekin landu ditut. Gainera, Joseba Sarrionandiaren eta Oier Guillanen bi letra ere badaude diskoan.

Zelan sortu zen Han?

**K.G.:** Gorka eta ni Non Demonstre taldean ibili ginen, eta denbora bat elkarrekin aritu barik egon eta gero, berriro elkartu ginen. Kanarietatik Elorrion bizitzera etorri berria zen Migueli eta Nereari proposatu genien, gero, taldera batzea.

**N.L.:** Lehenago ere Karlosen eta Gorkaren taldeetan kantatu izan dut, baina orain bezain serio hartuta, sekula ez.



Argazkia: Itziar Bastarrিকা.



**> BERTSOLARITZA I. Esteban**

Datorren barikuan jokatuko dute Bertsolari Gazteen Mallabiko lehenengo txapelketaren finala. Joan zen asteburuan Trabaku Behokoa tabernan egidako bigarren eta azken finalaurrekoan jakin zen parte hartu duten zortzi bertsolarietatik zein laukotek kantatuko duen txapelketaren finalean: Ane Labaka lasartearra, Maider Arregi oñatiarra, Aitor Salegi zestoarra, eta Unai Mendizabal zizurkildarra ariko dira Mallabiko finalean.

Mallabiko Herriko tabernan jokatuko dute finala, 21:30etik aurrera. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, txapelketan parte hartu duten bertsolari guztiei kantatzeko aukera eskaintzeko helburuagaz, triki bertso poteoa egingo dute, 19:00etan. Finalerako sailkatu ez diren lau bertsolariak kantatuko dute, beraz, finalaren aurretik: Eli Pagola, Endika Igartzabal, Eneko Arrate eta Aratz Igartzabal ibiliko dira tabernaz taberna.

Ondoren, Mallabiko txapela zeinek eramango jardungo dira finalistak. Afariaren eta saioaren ostean, Durangorako autobusa ipiniko dute, Mallabin hasitako jaiagaz jarraitzeko.

## Erabakita dago Mallabiko bertso txapelketaren finaleko laukotea

Abenduaren 4an, Mallabiko Herriko tabernan jokatuko dute txapelketaren finala



Trabaku Goikoa tabernako bertso afarian jokatu zuten lehenengo kanporaketa saioko irudia. Valentin Mugarza

Mallabiko gazte bertsozale talde baten ekimena izan da txapelketa antolatzea: zazpi lagun bertsozale horiek arduratu dira, baita, esaterako, txapelketarako gaiak pentsatzeaz ere. “Ikusirik Mallabian euskara eta bertsozaltasuna indarra galtzen dabil-

tzala, pentsatu genuen interesgarria izan zitekeela horrelako ekimen bat martxan jartzea”, azaldu du Xabat Uzuriaga gazte taldeko kideak. “Gainera, saioak bertso afarietan jokatu direnez, herriko tabernekin elkarlanean aritu gara”.

Txapelketako aurreko bi saioetan giro oso polita sortu zela eta, pozik daude antolatzaileak. Aurreratu dute, gainera, finalerako txartel ia guztiak saldu dituztela aste honetarako, eta “finalean ere giro polita sortuko dela” espero dutela.

## Miren Uribelarreak ilustratu du Aristiren umeentzako ipuin berria

‘Armiarma txiki baten epopeia handia’ da Pako Aristik idatzirik liburua

**> LITERATURA I. E.**

Pako Aristiren *Armiarma txiki baten epopeia handia* liburua

ilustratu du Miren Uribelarrea gazte durangarrak. Erein argitaletxeagaz kaleratu dute, 7 eta

10 urte artekoei zuzendurik. Azaroaren 13an, Donostian aurkeztu zuten lan berria Aristik eta Uribelarreak, eta libururako ideia “Melillako hesian zintzilikaturiko pertsonen iruditik” sortu zitzaizela azaldu zuen idazleak: “Armiarmak ziruditen, amaraun hartan”. Afrikatik Europara datozen gorabeheren metafora da liburukoa. Baina, egilearen berbetan, baztertutiko beste edozeinena ere izan zitekeen. Istorioren protagonista izateko, “ikusitako gorrotatzen dugun animalia bat”, hautatu zuen Aristik: armiarma.

Miren Uribelarrearen ilustrazio lanak liburu baten argia ikusi duen lehenengo aldia da, baina Aristiren liburuaren protagonista, armiarma, ez zaiola arrotza egiten azaldu zuen Uribelarrea durangarrak liburuaren aurkezpenean. Azaldu zuen Arte Ederrak ikasten zebilela, animalia baten inguruko proiektu bat gauzatu behar izan zutela, eta hain justu ere, armiarma aukeratu zuela bere lana egiteko. Gainera, Karrika Antzerki taldearen azken obrarako, bere pertsonaiari ere armiarmaren ezaugarriak eman zizkiola azaldu zuen.

Ilustrazio lanari ekiterakoan, antzerkigintzan bezala, pertsonaiaren azalean jartzea bilatzen duela esan zuen Uribelarreak: “Beragaz identifikatzen naramaten gauzetatik, pertsonaiaren izaera sortzeko”.



Azaroaren 13an, Donostian, aurkeztu zuten Ereinek argitaratu duen liburua.

**GEURE DURANGALDEA**

**JOSE JULIAN BAKEDANO**

Zinegilea

**Paul Iribe**

Aita euskaldun eta ama andaluziarren semea, 1883. urtean jaio zen, Paul Iribe, Art Deco estiloaren aitzindaria. Tenisean jokatzen zebilela, 1934an, bihotzekoak jota hil zen. Iriberen heriotzagaz, Coco Chanel jostunak ezkontzeko azken aukera galdu zuen. Bere emaztegaia bezain xenofobo eta atzerakoa zen Iribe: munduko zibilizazio handiak euskaldunek sortuak zirela uste zuen.

Ilustratzailea izan zen Iribe, eta umorezko marrazketan ere jardun zen. Karikaturen arloko maisuen oinordekoa zen, sasoiko errealitatearen testigu inkonformista, publizista dotorea, estilo propioa zeukan moda-ilustratzailea, antzerkiko dekoratzailea, editorea, forma berrien sortzailea (dekorazioko objektuak, bitxiak, lepo-zapiak eta altzariak), lukuaren industriaren zerbitzura jardun zen artista industria, Stavisky (1933-1935) *affair* eskandalugarriaren testigua, eta zinemako zuzendari artistikoa Hollywooden: Georges Fitzmaurice zuzendariaren *The Right Love* (1919) filmean lan egin zuen, eta baita, 1921 eta 1925 artean, Cecil B. DeMille hamabi lanetan ere.

1926an, *King of kings* filmaren grabazio lanetan zebiltzala, apurtu zuen Cecil B. DeMille-ekin elkarlana: Gólgota eszenaren grabaketan eztabaida bortitza izan ei zuten: Iribe Palestinako koloreekiko leial izan gura zuen, eta dekoratuak eta jantziak Kristoren bizi-baldintzetara moldatzea; DeMillek, aldiz, ikusgarritasuna gura zuen, erreferentzia dokumental askorik barik.

Hainbat ospetsuk gorai patu dute Iriberen lana: Cecil B. DeMillek bere autobiografian esaten du “inoiz izan den zuzendari artistikorik onenetarikoa” izan zela.

**Pablo De Naverán**  
XXVI. Musika Hamabostaldia

Azaroaren 28an  
20:00etan

**Dantzatan**  
Euskal koreografo gazteen erakusketa  
Azaroaren 29an  
19:00etan

Sanagustinalde, 12  
Tel.: 946 030 021  
sanagustin@durango-udala.net

San Agustin KULTUR GUNEA

**PLATERUENA**

**Durangoko Kafe Antzokia** www.plateruena.eus  
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

**JAT ETX EA**

EGUNEKO MENUA  
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

**AZAROAK 27**  
21:30ean  
**DURANG(H)OTS JAM SESSION**  
KONTZERTUA

*Live And Beat*

**AZAROAK 28**  
0:30ean  
**CRAZY PARTY**  
JAIALDIA

**LOKALTIK AT**

**AZAROAK 29**  
20:00etan  
**LOKALTIK AT LEHIAKETA**  
LEHIAKETA



# E P O C A

ERREFORMAK - SUKALDEAK  
BAINUGELAK - ALTZARIAK - DEKORAZIOA



Zuk nahi duzun etxea  
egiten lagunduko dizugu

Madalenoste, 7  
Tel.: 946 472 012  
epoca@epocasukaldeak.com  
48200 DURANGO Bizkaia

· [www.epocasukaldeak.com](http://www.epocasukaldeak.com) ·

jarrai gaitzazu Facebook-en!  
 epoca.goro

San Juan, 5  
Tel.: 943 700 216  
epoca@activahogar.com  
20600 EIBAR Gipuzkoa





# Azokaren 50 urteko historia, irudiak eta istorioak liburuan bildu dituzte

Durungaldeko hiru sortzaile dira egileak: Joseba Sarrionandia, Jesus Mari Arruabarrena eta Txelu Angoitia



BBKren babesletzagaz kaleratu dute liburua, eta Bilboko BBK Aretoan aurkeztu zuten, martitzenean.

**> LITERATURA** Itsaso Esteban Durangoko Azokaren 50 urteetako ibilbidea jasotzen duen liburua aurkeztu du, Gerediaga Elkarteak, asteon, Bilboko BBK Aretoan. Liburuaren egileetako

bi, Jesus Mari Arruabarrena eta Txelu Angoitia izan dira liburuaren aurkezpen prentsurrekoan, eta baita Aitziber Atorrasagasti Gerediaga elkarteko kudeatzailea, Asun Elorriaga

elkarteko idazkaria, eta Ixone Zubieta BBK-ko ordezkaria ere.

Arruabarrenaren eta Angoitien lanagaz batera, Joseba Sarrionandia idatzitako parte bat ere badu liburua berriak.

Gerediaga Elkarteak azpimarratu du “saiakera mamitsua eta ausarta” idatzi duela Sarrionandia liburua horretarako. Azokaren inguruko lekukotzak bildu ditu, bestalde, Jesus Mari

Arruabarrenak, eta irudia gehitu dio Txelu Angoitia.

Egile bakoitzak liburuaren atal bat osatu du. Joseba Sarrionandia *Mundutik Azokara* izenburuko parte landu du, “nazioarteko eta Euskal Herriko 1965etik 2015era arteko gertakariak Azokarekin lotuz”. Azokaren historiari testuingurua jarri dio, beraz, idazle iurretarrak, Gerediaga Elkarteak azpimarratu duenez, “oso perspektiba berezi batetik”.

Arruabarrenak egin du *Azokatik Mundura* izenburuko atala: Azokaren sorreran eta ibilbidean parte hartu zuten hamar lagun elkarriketatu ditu.

Irudia da nagusi hirugarren atalean. Azken 15 urteetan Durangoko Azokan argazkilari lana burutu duen Txelu Angoitia Azokaren “alde intimista eta artistikoa” ematen du liburuan, azken urteetako argazkiekin zein artxiboko irudiekin.

Liburua saiakera formatuan dago idatzita, baina Gerediaga Elkarteak azpimarratu duenez, “irakurterraza eta dibulgatiboa da”. “Lasaitasunez irakurtzeko liburu bat da, gozatzekoa eta gordetzekoa”, nabarmendu zuten aurkezpenean.

Euskaraz idatzitakoak du lehentasuna, baina amaieran gaztelarako itzulpena ere jasotzen du 255 orriko liburu elebidunak. Durangoko Azokan, 20 euroan salduko dute.

## Kultura arteko fotonobela tailerra egingo dute Durangon

### > MUSIKA I. E.

Kulturen arteko bizikidetzarako tresna izateko antolatatu du Durangoko Udalak Fotonobela tailerra: jatorri desberdinetako 16 eta 30 urte arteko gazteei sorkuntza lanetan elkarrekintzan jarduteko aukera eskaini gura diete. Abenduaren 3a baino lehen, Udaleko Inmigrazio Sailera deituta (94 465 70 94) eman daiteke izena.

Taldeka fotonobela bat sortzeko elkartuko dira doako tailer honetan izena ematen dutenak. Elkarregaz egingo dute lan gidoia sortzeko, argazkiak egiteko, produktua makeatzeko eta inprimatzeko: argazkigintza, kominkigintza eta idazketa landuko dituzte, beraz, Txelu Angoitia argazkilari durangarraren laguntzagaz.

Jatorri desberdinetako gazteei elkar ezagutzeko aukera eskaintzeko antolatatu dute tailerra: elkarren berri izan, eta euren arteko sare sozialak erakitzen hastea errazteko.

## Hiru euskal koreografo gazteren lana, Zornotzan eta Durangon

‘Dantzatan’ ekimenaren emanaldi bi izango dira, asteburuan, Durangaldean



Ziomara Hormaetxeren ‘Symbiosis’ da Dantzatan zikloaren barruan eskainiko dutenetako bat.

### > DANTZA I. E.

Euskal Herriko koreografo gazteek osaturiko hiru dantza konpainiaren emanaldiak izango dira, asteburuan, Zornotzan eta Durangon. Gaur, 21:00eta-

tik aurrera, Zornotza Aretoan eskainiko dute emanaldia, eta San Agustin kulturgunean, domekan, 19:00etan. Dantza garai-kidearen hiru pieza dira *Dantzatan* izenburuko ikuskizun

honek eskualdera dakartzanak, 12, 20 eta 15 minutuko iraupeneko ikuskizunak.

Lasala konpainiaren *Hooked (still)*, Cía Dantza Ziomara Hormaetxe taldearen *Symbiosis*, eta

Ertza konpainiaren *Joan zarete-nei, adio* izango dira ikusgai

Judith Argomaniz eta Jaiotz Osa dantzariak eskainiko dute Lasala taldearen koreografia. Gizakiak lotura afektiboak izateko duen beharrari eta horrek eragindako egoerei buruzko lana da Lasalarena.

Asier Zabaleta dantzariak berak sortu eta zuzenduriko ‘Joan zirenei, adio’ pieza eskainiko du emanaldietan

Bi dantzariak eskainiko dute, *Symbiosis* koreografia ere: Ziomara Hormaetxe da lanaren koreografoa, eta Robert Jackson dantzariagaz ariko da Durangaldeko bi oholtzetan. Harremanez dihardu lan honek ere; “bi organismoren arteko harreman estu eta iraunkorrari buruz”.

Asier Zabaleta dantzariak, bestalde, “Euskal Herriak 40 urtean bizi izan duen gatazkaren ondorioz bizitza galdu duten pertsona guztiei zuzenduriko obra” eskainiko du. *Joan zarete-nei, adio* du izenburua lanak, eta Zabaleta du koreografo, zuzendari eta dantzari bakar.





**ERROTARITXUENA DURANGO**

**Errotaritxuena**ren arrakastaren arrazoiak:

- Finantzatzeko **ERRAZTASUNAK**
- ASKOTARIKO** tipologiak (1, 2, 3 eta 4 logela)
- Terrazak etxebizitza **GUZTIETAN**
- Mugarra alderako **BISTA** garbiak
- Barneko **PLAZA** zabala
- Auzoari **BURU EMATEA**
- Gauzatzeko **URBANIZAZIO KARGARIK GABE**
- SALTOKIAK** eraikinetik oso gertu
- Berdeguniak eta **LASAITASUNA**
- ARRISKURIK GABEKO** aukera

**BALDINTZA BERRIAK KONTSULTATU**

[www.solvía.es](http://www.solvía.es) Sabadell/Guipeuzcoano **BS**

946 46 20 41 

[www.sukia.com](http://www.sukia.com) 

**sukia** Zure etxean zaude  
Estás en tu casa





# JATETXE GIDA

ÑAM!



## PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ  
Tel.: 946 826 246

Eguneko menua. Karta. Domeka,  
astelehen eta martitzen gauetan itxita.



ÑAM!



## MENU BEREZIA

Sarrerakoak (bi aukeran)  
Entsalada  
Patata frijituak  
Zatitutako txuleta errea  
Postrea  
Ogia eta edaria

**60€**  
bikoteko  
(BEZa barne)



## JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ  
Tel.: 946 824 077

Karta. Txuleta errea.  
75 lagunentzako jangela.

ÑAM!



## LAPIKO

Frantzisko Ibarra, 3 DURANGO  
Tel.: 946 218 122

Etxeko pizzak. Eguneko menua,  
karta berria. Etxera eramateko zerbitzua.  
[www.lapikodurango.com](http://www.lapikodurango.com)



ÑAM!



## PLATERUENA Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4 DURANGO  
Tel.: 946 030 300

Egunero zabalik. Menu bereziak, egunekoak,  
taldeentzakoak eta ospakizunak.



ÑAM!



## IKUSPEGI

Goiuria, 12 IURRETA  
Tel.: 946 811 082

Sukaldaritza tradizionala autore sukaldaritza  
ukituarekin. Durangaldeko ikuspegi ederrak.  
[www.ikuspegi.com](http://www.ikuspegi.com)



**Profesional  
onenak zure  
zerbitzura!**



# Nissan-Gaursak Zarautz liderra hartuko du bihar Arripausuetan

Zarautzek orain arteko partidu denak irabazi ditu; Durangoko taldea ere goialdean kokatuta dago, baina oraindik erregulartasuna falta zaie jokoan



Orain arteko zortzi partiduetan hiru garaipen lortu ditu Durango Nissan Gaursa taldeak. Jon Iglesias

## > KORRIKA J. D.

Gizonen Durango Nissan-Gaursa errugbi taldeak erronka gogorra du bihar, 17:00etan, Zarautzen kontra Arripausuetan. Talde gipuzkoarrak orain arte jokatuak zortzi partiduak irabazi ditu eta lider sendoa da. DRTk, aldiz, oraindik bere jokoa fintzeko ahaleginetan dihardu. Oskar Astarloaren agindueta, jokalariai proiektu berriari

neurria hartu nahian dabilza eta boladaka erakusten duten jokoa jarraikortasuna ematea falta zaie.

Ligako lehen herena joan denean, Nissan-Gaursa sailkapeneko bosgarren tokian dago. Eroso kokatuta dagoela pentsatu daiteke, baina, hori ez da egia biribila: puntu gutxiren barruan talde asko daude. Zazpi puntuk banatzen ditu DRT eta

azken aurreko Quesos Entrepinaren. Joan zen astean Vigori lehen jardunalditik atzeratutako partidua irabazita (12-0) arnasa hartu zuen Durangoko taldeak. Punturik jaso ez izana aurrerapausua dela uste du Astarloa entrenatzaileak, baina, oro har, jokoa hutsuneak ikusi zituen. Erasoan, hiru-laurdenetan baloia "errazegi" galdu zuten sarritan; erasoko tran-

tsizioak ez ziren nahi bezain emankorrak izan denboraldiko beste partidu batzuetan gertatu moduan, eta hankako jokoagaz batera, alderdi horiek hobetu beharra dutela uste du.

Zarautzen kontra garesti ordaindu daitezke akatsak. Talde gipuzkoarra mailako talderik gogorrenetakoak da eta hainbat izar ditu. Denen gainera, Phillip Huxford zeelanda bertarra dago. Sei urtez Ordiziagaz Ohorezko Mailan jokatu du eta aurten bere kalitatearen berri ematen ari da Ohorezko B Mai-

Zarautzi irabazteko gakoetako bat izango da Ordizian sei urtez aritu den Huxford jokalaria geratzea

lan. Jokalari azkarra izateaz gainera, ostiko zehatza du eta jokoa ondo ikusten du. Jokalari hori indargabetzea izango da partidua irabazteko gakoetako bat.

## Murray selekzioagaz

Nesketan azpimarratzeko da Nissan-Gaursa taldeko Joana Murray gaztea Espainiako Errugbi Selekzioko taldean izan dela Eskoziaren kontra jokatzeko. Espainiako Selekzioa eraberritze prozesuan dago eta atzetik gogor datozen kimu berrietakoa da Murray durangarra. Partidu horretan Eskozia gehiago izan zen: 10-34.

## ADITUAREN TXOKOA

**GOTZON GOMEZ**

Errugbia



## Agur eta Ohore Lomuri

Zeelanda Berriak munduko txapelketan egindako erakustaldiak utzitako gozotasunak ez du asko iraun, eta Jonah Lomu handiaren heriotzak zapora gazia utzi du errugbizaleon ahotan.

Nor dugu Jonah Lomu? Nire ustez errugbia modernizatu zuen gizonezkoa zen. Horrela esanda astakeria ematen du; nola dezake modernizatu jokalaria bakar batek hain zabaldua dagoen kirola?

Bi arlo aipatuko ditut: jokoa dagokionez, aldaketa itzela ekarri zuen hegalean halako gizandia aritzeak: 1,96 metro eta 120 kilo. Sasoi hartan, 90eko hamarkadan, jokalaria handienak eta indartsuenak melean aritzen ziren, eta gainerakoak argalak eta trebeak ziren, are gehiago hegaletan jokatzeko zutenak. Berak jokalaria osoa, totala, islatzen zuen; ia postu guztietan joka zezakeen, indarra, teknika, abiadura, dena, zuen. Geroztik jokalarien fisiofisiologia aldatu zen eta egun denak atletak dira.

95eko mundu txapelketan nazioarte mailan bere lehen agerraldia egin zuenean 20 urterekin, ikusleak txundituta utzi zituen. Batez ere, finalerdietan lau entsegu egin zizkionean Ingalaterrari, halako batean ia talde erdia aise gaindituz. Jonah Lomu izar mediatikoa bihurtu zen.

Komunikabideetan ere arrakasta itzela lortu zuen. Egia esan, errugbiak izandako lehen izar mediatikoa izan zen. Kirol marka handienekin iragarki ikusgarriak egiten zituen, telebistan eta komunikabideetan asko agertu zen... Errugbia ez ezagutzen zuten. Mito bihurtu zen.

2002an, errebisio batean giltzurrunean gaixotasun gogorra ikusi zioten medikuek, ez zuen bere maila berreskuratu eta errugbia utzi behar izan zuen. Azken munduko kopan telebista baterako aritu zen kazetari lanetan eta Aucklandera bueltan hil zen. Goian bego Jonah Tali Lomu, beti izango zaitugu gogoan!

## Tabirakok izen-ematea hasi du Gabonetako kanpuserako

### > SASKIBALOIA J. D.

Tabirako saskibaloia klubak Gabonetako Kanpusean parte hartu ahal izateko izen-ematea hasi du. 2000 eta 2009 urteen artean jaiotakoei bideratuta dago kanpusera. Plaza mugatuak daude eta abenduaren 11ra arte eman daiteke izena.

Kanpusera abenduaren 28an, 29an eta 30ean, eta, urtarrilaren 4an eta 5ean egingo dute. Saioak goizetan izango dira: 09:00etatik 13:00era. Kanpusera parte hartu gura dutentzako prezioa 60 euro da, baina gura duenak egunka ere hartu dezake.

Izen-ematea [www.tabirako.com](http://www.tabirako.com) webgunean egin daiteke. Aurrez izena emateko modua ere badago [campus@tabirako.eus](mailto:campus@tabirako.eus) helbidean.

## Domekan mendi bizikleta martxa egingo zute Zaldibarren

### > MENDI BIZIKLETA J. D.

Lagunartea bizikleta elkarrekin mendi bizikleta martxa antolatuko du domekarako. Aurten 14. aldia izango duen martxa 10:00etan hasiko da plazatik.

Izen-ematea doakoa izango da. Kudeaketa erraztu eta zerbitzu hobea eskaini ahal izateko, [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean egitea komeni da, baina egunean bertan apuntatzeko aukera ere eskaini dute antolatzaileek. 25 eta 30 kilometroko ibilbide bana aurreikusi dituzte. Ibilbide luzeak 1.000 metroko desnibel positiboa dauka eta laburrak 800 metrokoa.

Probaren amaieran sariak zotz egingo dituzte parte-hartzaileen artean.

## Tornosolo Kopako finalerdia gaur

Mikel Gonzalez berriztarrak eta Ander Antxia abadiñarrak finalerdi banatan jokatu dute

### > TRINKETA J. D.

Tornosolo Kopako finalerdia jokatu dituzte, gaur, 19:00etan, Abadiñoko trinketean. Mikel Gonzalezek iazko txapelkun Inhar Ugarte izango du kontrario eta Ander Antxiak Thierry Harismendy.

Harismendy abadiñarren lepotik egin gura du finaleko bidea. Final laurdenetan abadiñar bat -Asier Aspuru- kanporatuta, beste hainbeste egin gura du Ander Antxiarekin. Favorito argi bako partidua da. Antxiak irabaziz gero, iazko finala erreprekatuko luke.

Asier Aspuru, bere aldetik, lan bikaina osatu zuen Harismendyren kontra, eta azken

unera arte irabazteko aukerak izan zituen (37-40), bera baino esperientzia askoz handiagoko pilotariaren aurka.

Mikel Gonzalez eta Inhar Ugarteren artekoan, lehenengo izango da favorito. Gonzalezek denbora darama Ipar Euskal Herriko trinketerik garrantzitsuenetan modalitateko onenen kontra lehiatzen —eta irabazten—, eta iazko txapelkun Ugartek zail izango du beste final bat jokatzeko. Esaterako, joan zen astean Gonzalezek xehatu egin zuen Munduko Kopan brontzea lortutako Oier Gurutzalde: 40-12. Pilotari bien artean oraindik koxka bat dagoela agerian geratu zen final laurdenetan.





Bizkaiko Txirrindularitza Federazioko, Berrizko Udaleko, Berriz Bizikletari Elkarteko ordezkariak probaren aurkezpenean.

## Berrizko ziklo-krosa: parekotasuna lehian eta parekidetasuna sarietan

Biharko proban sari berdinak jasoko dituzte gizonak eta emakumeak

### > KORRIKA J. D.

Zapatuan Berrizko 6. Ziklo-Kros Proba lehiatuko dute Berrizburu inguruan atondutako zirkuituan. Euskaldun Koparako puntuagarria da, eta Bizkaiko txapelkunak erabakiko dira hirugarren urtez. Maila oneko txirrindulariak datoz eta haien

arteko borroka estua espero da. Aurtengo nobedadeetako bat emakumeen eta gizonen arteko sariak eta dietak parekatu egin dituztela da. Euskal Herrian parekidetasunaren aldeko urrats hori eman duten probetako bi Durangaldean daude: Abadiñon eta Berrizen.

Berrizburu inguruan diseinatutako zirkuituak 2,8 kilometro ditu. Iaz, belodromotik hasi zuten, baina, aurtun, hasiera eta irteera kanpoaldean bateratu dituzte, epaileen lana errazteko. Azken egunetako euriagaz zirkuituko gunek batzuk lokaztuta egongo dira. Hori ez da arazoa

## Azpiri Olazarreko finalerdietan sartu da

Astelehenean amaituko dituzte final laurdenak

### > PILOTA J. D.

Bere pilotari ibilbidean bosgarren biderrez, Zaldibarko Olazar pilotari txapelketako finalerdia jokatu du Igor Azpiri elorriarrak. Joan zen asteko eguenean lortu zuen sailkapena. Olaizola eta biek 22-16 menderatu zituzten Elezkano eta Bolinaga. Orain, sekula gainditu ez duen koskaren atarian dago: aurreko lau aldietan ezin izan du finalerako sailkatu, eta aurtun mugarri hori behingoz gainditzea du helburu.

Urbieta eta Martijarena da finalerdietarako sailkatuta dagoen bigarren bikotea. Hirugarrena atzo erabaki zen eta azkenak astelehenean, 18:00etan, jakingo dira: San Andres eguenean, Labaka eta Tabar Errandonea eta Martinezen kontra neurtuko dira binaka.

Lau t'erdian, Zubizarreta eta Egiguren finalerdietan daude dagoeneko. Astelehenean, binakoaren aurretik, Peña eta Salaberria lehiatuko dira kaiolako azken plazaren bila.



Errandoneak final laurdenak jokatu ditu astelehenean Martinezekin. M.Zuazubiskar

### Azaroak 28-Irteerak

- **10:00** Kadeteak, neskek zein mutilak.
- **11:00** Junior mutilak / junior, 23 urtez azpikoak eta elite neskek.
- **12:00** Master 30 / 40 / 50 eta 60.
- **13:00** 23 urte azpikoak eta elite mutilak.

parte hartzaileentzako, "aurten zirkuitu lehorretan aritzen nekatuta daudelako", Agus Ruiz Bizkaiko Federazioko presidentearen esanetan. Egunean bertan euririk ez egitea da Berriz Bizikletari elkarteko antolatzaileen nahia: "Edozelan ere, Berrizko zaleek beti erantzuten dute", dio itxaropentsu Roberto Gomez elkarteko kideak.

250 bat txirrindularik parte hartuko dute mailaz maila. Gizonen elitean Aitor Hernández eta Javier Ruiz de Larrinagaren arteko lehia espero da. Emakumeetan Olatz Odriozola eta Eider Merinoren artean egon daiteke garaipena.

Aurtun Bizkaiko txapelketa Berrizen jokatu dute. Datoren urtean Euskal Herriko txapelketa Berrizen izateko eskaera prozesua hasi dutela ere adierazi dute.

### AGENDA

#### > FUTBOLA

##### EUSKAL LIGA (emakumeak)

##### Elorrio - Arratia

· Domekan, 16:00etan, Eleizalden.

##### OHOREZKO MAILA (gizonak)

##### Iurretako - Gallarta

· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaian.

##### Elorrio - Sodupe

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

##### MAILA GORENA

##### Abadiño - San Ignacio

· Zapatuan, 15:30ean, Astolan.

##### LEHEN ERREGIONALA (gizonak)

##### Ezkurdi - Plentzia

· Domekan, 16:30ean, Arripausuetan.

##### Amorebieta B - Arraiz

· Domekan, 18:15ean, Txolonen.

##### LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)

##### Ezkurdi - Basauritar Emakume

· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran

#### > ARETO-FUTBOLA

##### HIRUGARREN MAILA

##### Presion Break - Meatzari Petronor

· Zapatuan, 16:50ean, Berrizburun.

##### Elorrioko Buskantza - Goierri

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioren.

##### MAILA GORENA

##### Abadiñoko Gaztetxe - Ibaizabal

· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienan.

#### > SASKIBALOIA

##### ZILARREZKO ADECCO LIGA

##### Zornotza - Tarragona

· Zapatuan, 18:30ean, Larrean.

##### LEHEN MAILA (gizonak)

##### Tabirako Baqué - Uni. Deusto Loiola

· Zapatuan, 19:00etan, Landakon.

##### EMAKUMEEN LIGA

##### Elorrioko Buskantza - Bakio

· Domekan, 12:15ean, Elorrioren

#### > ESKUBALOIA

##### EUSKADI MAILA

##### Ibaizabal - Basauri

· Zapatuan, 19:00etan, Landakon.

#### > ERRUGBIA

##### OHOREZKO B MAILA

##### Nissan Gaurisa - Zarautz

· Zapatuan, 17:00etan, Arripausuetan

SUKALDEAK ETA ETXEKO ALTZARIAK NEURRIRA

**SCHMIDT**



Murueta auzoa, 17B lokala · Eroski saltoki-gunea - ABADIÑO · Tel.: 946 526 195 · info@schmitd-abadiano.com



# · Etorri ikustera ·



**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Iurretan, Durangon eta Elorrión aukera oso onak!



*Durangoko herrigunean*



*Energia-eraginkortasun  
handiko etxebizitzak*



*Hiriko txaletak*



*Oiz mendira begiratokiak*




*Leku zabalak*

**[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)**

Bixente Kapanaga, 19

Iurreta - Bizkaia

946 816 673

 Zarate eta Elexpe Eragileak SL.



# Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmodurangesado.com](http://www.inmodurangesado.com)  
inmodurangesado@gmail.com

**Fernando Uribe**  
AGENCIA INMOBILIARIA  
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423  
48200 DURANGO • Bizkaia

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)

## ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 575€-tik aurrera.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### DURANGO

- TABIRAKALEA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira. Garaje itxia.
- ERROTARITXUENA: Atikoa. 3 logela, 2 komun, sukalde-egongela. 2 terraza handi. Etxe osoak kanpora ematen du. 4 kotxerentzako garaje itxia.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, 2 komun eta egongela. Ganbara eta garajea. Berriztatua.
- FRANZISKO IBARRA: 4 logela, 2 komun, sukaldea, despentsa eta egongela balkoiarekin.
- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 120.000€.
- ARTEKALE: 8 etxebizitza eraikitzen. Logela 1 eta 2koak. Trastelekuarekin. 128.000€-tik aurrera.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

### ATXONDO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. 3 balkoi. Garaje itxia.
- 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekuak. Berria ematen du.

### LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

### ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekuak.

### ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekuak.

## LUR SAILAK SALGAI

### ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.000 m2-ko lursaila salgai. Zonalde egokia.

### BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

### IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

### ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Informazio pertsonalizatua.

### EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

### ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

## BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- ABADIÑO: Gaztelua. Baserría. Arku zoragarria dauka sarreran. 20.000 m2-ko lursaila baserri ondoan.
- BERRIZ: 1.200 m2-ko lursailean kokatutako txaleta, Abeltxe kalean. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garajea.
- ATXONDO: Martza auzoan. 15.000 m2-ko lursaila. Teilatu berria. Zonalde ikusgarria.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### BARRENKALE: 219.000€



- Egoera onean. Guztiz jantzia. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. 2 balkoi. 8 m2-ko trastelekuak.

### MONTEBIDEO: 204.000€



- 80 m2. Berriztatua. 2 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Igogailua.

### ANTSO ESTEGIZ :139.000€



- 78 m2. 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Gas naturaleko berogailua. Bizitzeko sartzeko moduan. 78 m2

### ARAMOTZ: 135.000€ Negoziagarria



- 63 m2. Guztiz jantzia. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berogailua.

### MATIENA : 99.000€



- 61 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Ganbara. Gas naturaleko berogailua.

### BERRIZ: 149.000€



- 70 m2. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoiak. Trastelekuak.

[www.inmodurangesado.com](http://www.inmodurangesado.com)

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/4 logela eta 2 komun.
- ANDRA MARIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 2 terraza handi.
- ARAMOTZ: Halla, 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ARTEKALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekuak.
- ASTOLABIDE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoi 2. Garajea eta trastelekuak.
- BARRENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoiak.
- ERROTARITXUENA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza 2. Garajea aukeran eta trastelekuak.
- ERRENTXU: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoiak. Garajea aukeran.
- EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Garajea aukeran eta trastelekuak.
- EZKURDI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta komuna.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, egongela, egongelatxo, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- FRANZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoiak. Garajea aukeran.
- GALTZARETA: 5 logela, sukaldea, egongela, komun 2 eta bainugela 2. Portxea. Garajea eta trastelekuak.
- GOIENKALEA: logela, sukalde-jangela eta komuna. 2 terraza. Trastelekuak.
- JOSE ANTONIO AGIRRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoiak. Garajea eta trastelekuak.
- JUAN ITZIARKO: 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta despentsa.
- JUAN ITZIARKO: 2 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Lursailarekin.
- JUAN MARI ALTUNA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekuak.
- KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- KOMENTUKALEA: 2/4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekuak.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoiak. Garajea eta trastelekuak.
- MONTEVIDEO: 2/3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza.
- MUGARRA: 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. Balkoiak. Trastelekuak.
- PLATERUEN PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea.
- SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
- SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Terraza.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekuak.
- SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoiak. Garajea eta trastelekuak.
- SASIKOA: 4 logela, sukalde-jangela, egongela eta komun 2. Balkoiak. Trastelekuak.
- TABIRA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Despentsa. Balkoiak.
- UNDATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- URKIAGA TORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekuak.

**Etxebizitza gehiago salgai Matienan, Abadiñon, Berrizen, Zaldibarren eta Otxandion, besteak beste.**

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### IBAIZABAL:



- 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea eskegitokiarekin. Ganbara eta garajea.

### MATIENA



- 4 logela, komuna, sukaldea, despentsa eta egongela terrazarekin. Garajea aukeran. **165.000€.**

### MONTEBIDEO



- Apartamentu zabala. Egongela, komuna eta sukaldea balkoiarekin. Ganbara. Garajea eta trastelekuak. **155.000€.**

### BERRIZ: B. GABIOLA



- 110 m2. Erdi berria. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea eskegitokiarekin. Trastelekuak eta garajea aukeran. **180.000€.**

### ZALDIBAR



- Erdialdean. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. 2 terraza. Igogailua. Berogailua. **140.000€.**

### OLLERIA: LANDAKO



- 100 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara eta garaje handia. **275.000€.**

**LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.**  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)




# Gerediagako erakustokia, nobebadez josita

Aurtengo Durangoko Azoka berezia izango da. 50. urtemuga honetan Durangoko Azokak inoiz baino kultur ekitaldi gehiago izango ditu -250etik gora-, Argizaiola Saria Gerediagako sortzaileek jasoko dute, amaiera ikusgarria izango du... Azokagaz

batera, Gerediaga elkartearen erakustokia ere berezia izango da. Abenduaren 4tik 8ra arte Landakora gerturazten diren lagunek Gerediagak plazaratutako bost nobedade eskuratzeko aukera izango dute. Ezagutu gura dituzu?



1 Durangoko Azoka 1965-2015



2 Hamabi harrien ahotsa



3 Durangaldeko historiaren egutegia



4 Astola aldizkarian, zortzi historia-ikerketak



5 Durangaldeko kartografiaren katalogoa

## 1 Durangoko Azoka 1965-2015 liburua

Aurtengo Azokaren edizioa mugarri hartuta, Gerediagak kulturaren plazaren ibilbidea jasotzen duen liburua kaleratu du. Joseba Sarrionandia, Jesus Mari Arruabarrena eta Txelu Angoitia dira egileak, eta bertan, irakurleak Azokaren historiaren nondik norakoak ezagutzeko aukera izango du. Horrez gain, Sarrionandiak testuingurua jarriko dio Azokari, kontaketa pertsonal eta ausart baten bidez. Angoitiaren argazkien bidez, azkenik, Azokaren alde bisuala eta artistikoa ezagutzeko aukera izango dugu.

## 2 Hamabi harrien ahotsa liburua

Gerediaga elkartearen sorrera eta bilakaera 190 orritan bildu dituzte Jon Irazabalek eta Raquel Calvok *Hamabi harrien ahotsa* liburuan. Bertan, elkartearen historian protagonista izan diren pertsonen lekukotzak jaso dituzte, orain arte argitaratu ez diren hainbat argazkigaz batera. Liburua elebiduna da.

## 3 Durangaldeko historiaren egutegia

Urtero legez, Gerediagak Durangaldeko argazkiekin egutegia kaleratuko du. Hilabete bakoitzean, Ricardo Doliwa alemaniarra-ren argazki historikoak batu dituzte. Erretratu ederrak dira, zuri-beltzean, ikusgarriak eta esangura handikoak. Doliwak 1940 eta 1950. hamarkadetako Durangaldeko herritarren egunerokotasuna islatu zuen bere argazkietan, eta eurretako asko oso bitxiak dira: II. Mundu Gerrako soldaduak Durangon, jaiak, paisaiak, ekitaldi erlijiosoa eta abar.

## 4 Astola aldizkarian, zortzi historia-ikerketak

Urteroko hitzorduari hutsik egin barik, Astola Ikerketa eta Historia aldizkariaren zenbaki berria argitaratu du Gerediaga Elkarteak. Guz-tira zortzi ikerketa lanek osatzen dute 160 orritako aldizkaria. Bederatzigarren zenbaki honetan gai interesgarri ugari landu dituzte: Atxarteko borroka, Elorrioko gerra frontea, Anbotoko Dama, Lorentzo Records musika-estudioa eta abar.

## 5 Durangaldeko kartografiaren katalogoa

Ramon Oleagaren bilduma pertsonalean oinarrituta, Gerediagak 20 mapez osatutako katalogoa argitaratu du Durangoko Arte eta Historia Museogaz batera. Bertan, historian zehar, XVI. mendetik hasita, Durangaldeko kartografian izan duen lekua ikusteko aukera dago. 1606koa da maparik zaharrena eta 2005koa berriena.



# AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



**Azaroaren 28an, Zaldibarko San Andres jaietan**

## Bad Sound System

Zaldibarko Gaztetxeak San Andres jaietarako antolatu duen egitarauaren barrukoa da biharko kontzertua. Skaleak taldeak zabalduko du emanaldia 23:30ean, eta Bad Sound System taldea ariko da ondoren. Irungo talde hori Euskal Herriko hip hop eta reggae eszenaren aitzindarietako bat da.



### Dantza

#### :: DURANGO

AZAROAREN 29an

**19:00etan**, 'Dantzatan: euskal koreografo gazteen erakustaldia', San Agustin kulturgunean.

#### :: ZORNOTZA

AZAROAREN 27an

**21:00etan**, 'Dantzatan', Zornotza Aretoan.



### Musika

#### :: BERRIZ

ABENDUAREN 3an

**22:00etan**, Joseba Irazoki eta lagunak, Kultur Etxean.

#### :: DURANGO

AZAROAREN 27an

**21:30ean**, Durang(h)ots Sessions, Plateruenean.

AZAROAREN 28an

**18:00etan**, Gehi Zazpi biolontxelo taldea, Sorginola Gaztetxean.

**20:00etan**, Pablo Naveran + Alexander Kandelaki, San Agustin kulturgunean.

#### :: ELORRIO

AZAROAREN 28an

**22:00etan**, Han, Arriolan.

ABENDUAREN 4an

**22:30ean**, Tonky Blues Band, Ateneoan.



### Erakusketa

#### :: DURANGO

AZAROAREN 29ra arte

Edurne Gorrotxategiren margolanak, Arte eta Historia Museoa.

Begira Photo: Pablo Trenor argazkilaria 'Dena da iturri' erakusketa, Arte eta Historia Museoa.

Begira Photo: Jon Gorosperen 'Leihoen abiadura' erakusketa, Plateruenean.

Begira Photo: Rous Boisier eta Leo Simoesen 'Gara' proiektua, Merkatu plazan.

URTARRILERA arte

'Tropezista' liburuko Elena Odriozolaren ilustrazioak, Artea liburudendan.

#### :: ZORNOTZA

ABENDUAREN 4ra arte

Bosteko 2015, Zelaieta zentroan.



### Solasaldia

#### :: BERRIZ

AZAROAREN 27an

**21:45ean**, Ander Odriozola zuendaria, 'Bingen' filmari buruz, Kultur Etxean.

#### :: DURANGO

AZAROAREN 27an

**22:00etan**, Berbarikua: Jai ereduaren inguru solasaldia, Sorginola Gaztetxean.



### Berbaldia

#### :: DURANGO

ABENDUAREN 2an

**17:00etan**, 'Teknologia berriztagarri eta garbiak' Luis Sutilen eskutik, Maristak ikastetxean.

#### :: ELORRIO

ABENDUAREN 2an

**19:00etan**, Josune Muñoz, Baztango trilogiari buruz, Iturri kultur etxean.



### Jaiak

#### :: ZALDIBAR

AZAROAREN 27an

**18:00etatik 20:00etara**, XXV. Argazki lehiaketako lanak, liburutegi zaharrea.

**18:30ean**, pintxoak Olazar futbol zelaian. Jarraian, Disco Music.

**19:00etan**, jaien hasiera, udaletxeko balkoitik. Ondoren, kalejira Koral elkarte txistulari eta buruhandiek.

**22:00etan**, Mor More kontzertuan, Zaldibarko Gaztetxean.

AZAROAREN 28an

**12:00-14:00 eta 18:00-20:00**, XXV. Argazki lehiaketako lanak, liburutegi zaharrea.

**12:00etan**, Desafioak, Gaztetxean.

**14:00etan**, bertso-bazkaria, Gaztelekuan.

**14:30ean**, bazkaria, Gaztetxean.

**18:30ean**, Polekeleke kale animazioa.

**23:30ean**, Skaleak + Bad Sound System taldeen kontzertuak, Gaztetxean.

AZAROAREN 29an

**10:00etan**, Zaldibarko XIV. Mendi Bizikleta Martxa.

**12:00-14:00**, XXV. Argazki lehiaketako lanak, liburutegi zaharrea.

**16:30-18:30**, eskalada umeentzat, eskalada-murruan.

**17:30ean**, Euskal Herriko Trikitilari Gazteen XXIV. txapelketaren finala, Olazar pilotalekuan.

AZAROAREN 30ean

**11:00etan**, kalejira, Euskal Herriko trikitilari gazteen txapelketako trikitilariekin.

**11:00-13:00 eta 16:00-19:00**, umeentzako parkea, kiroldegian.

**12:00-14:00**, XXV. Argazki lehiaketako lanak, liburutegi zaharrea.



### Kontalaria

#### :: ABADIÑO

ABENDUAREN 1ean

**18:00etan**, Lupe Lekuona, Udal Mediatekan.

#### :: ELORRIO

ABENDUAREN 1ean

**17:00etan**, Ines Bengoa, Iturri kultur etxean.

#### :: IURRETA

AZAROAREN 27an

**20:00etan**, Victoria Siedleckiren 'Mujeres de palabra', Herri Bibliotekan.



### Bertsoak

#### :: BERRIZ

AZAROAREN 29an

**12:30ean**, Andoni Egaña, Miren Amuriza, Sustrai Colina eta Alaia Martin, Kultur Etxean. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal.

#### :: MALLABIA

ABENDUAREN 4an

**21:30ean**, Bertsolari Gazteen I. Txapelketaren finala, Herriko soziedadean.



### Aurkezpena

#### :: BERRIZ

ABENDUAREN 2an

**19:30ean**, 'Arrierreka' ikusentzunezkoaren aurkezpena, Kultur Etxean.

#### :: ZALDIBAR

ABENDUAREN 3an

**19:00etan**, Euskararen Nazioarteko Egunerako egindako bideoaren aurkezpena, udaletxean.



### :: DURANGO | ZUGAZA

#### Los juegos del hambre. Sinsajo 2

- **barikua 27:** 19:00/22:00
- **zapateria 28:** 19:30/22:30
- **domeka 29:** 19:00/21:45
- **astelehena 30:** 18:30/21:00
- **martitzena 1:** 20:00

#### El viaje de Arlo

- **zapateria 28:** 17:00
- **domeka 29:** 16:45

#### 2. ARETOA

#### El viaje de Arlo

- **barikua 27:** 18:00/20:00
- **zapateria 28:** 16:00/18:00
- **domeka 29:** 17:30
- **astelehena 30:** 18:30
- **martitzena 1:** 20:00

#### 8 apellidos catalanes

- **barikua 27:** 22:00
- **zapateria 28:** 20:00/22:30
- **domeka 29:** 19:30/21:45
- **astelehena 30:** 21:00

### :: ELORRIO | ARRIOLA

#### Lejos de los hombres

- **domeka 29:** 20:00
- **astelehena 30:** 20:00

#### Asterix: Jainkoen egoitza

- **domeka 29:** 17:00

### :: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

#### 8 apellidos catalanes

- **zapateria 28:** 17:00/19:30/22:00
- **domeka 29:** 17:00/20:00
- **astelehena 30:** 20:15

#### Citizenfour

- **martitzena 1:** 20:00

## AZAROKO AGENDA

27

### IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA IPUIN KONTALARIA

Josu Jimenez: "Kamishibai ipuinak"  
**17:30** (3-4 urte bitartekoak).  
**18:00** (5 urtetik gorakoak).

### HELDUEN IPUIN KONTALARIA

**20:00** Mujeres de palabra. Victoria Siedlecki (Argentina).

30

### IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA GIZARTE ONGIZATEA

**18:15** Emakumeen literatur tailerra.

#### OHARRAK

##### DIRULAGUNTZAK

Udal kirol-instalazioetan norberak kirola egiteko, euskara ikasteko, musika ikasteko eta UEUko ikastaroetarako dirulaguntzak eskatzeko epea abenduaren 4ra arte izango da.

##### IURRETAKO ELKARTASUN MERKATU TXIKIA

Iurretako Elkartasun Merkatu txikira jostailuak, poltsak, imitaziozko bitxiak... ekartzeko epea azaroaren 23tik abenduaren 4ra izango da.

##### ANGELMAN SINDROMEA

Mugikor eta tableten bilketa kanpaina martxan da, dirua biltzeko gaixotasunaren ikerketarako.

Informazio gehiago:

Tel.: 670 909 007 - [info@angelman-asa.org](mailto:info@angelman-asa.org)



**> ESKELAK****JESUS MARI AGIRRE KEREXETA**

*Goian bego*  
PRESIDENTE OHIA

**2015eko azaroaren 24an hil zen**

*Gure dolimina adierazten dugu  
eta samin honen aurrean  
bat egiten dugu familiaren sentimenarekin*

**> BOTIKAK****BARIKUA, 27**

09:00-09:00

**Sagastizabal**

Askatasun etorb. 19 - Durango

**Goiria, Mari Carmen**

Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**

Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**ZAPATUA, 28**

09:00-09:00

**Bazan Diaz**

Uribarri 5 - Durango

**Goiria, Mari Carmen**

Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-13:30

**Sagastizabal**

Askatasun etorb. 19 - Durango

**De Diego**

Intxaurren 22 - Durango

**Navarro**

Artekalea 6 - Durango

**Campillo**

Montevideo etorb. 24 - Durango

**Unamuzaga**

Muruetatorre 2C - Durango

**Bartolome**

Gabiola 2 - Berriz

**Jaio-Olabarrieta**

Errekakale 6 - Elorrio

**Melero, Rosa Mari**

San Pedro 31 - Zornotza

09:00-14:00

**Irigoien**

Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**

Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**DOMEKA, 29**

09:00-09:00

**De Diego**

Intxaurren 22. - Durango

**Goiria, Mari Carmen**

Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**

Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**ASTELEHENA, 30**

09:00-09:00

**Campillo**

Montevideo etorb. 24 - Durango

**Melero, Rosa Mari**

San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**

Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**MARTITZENA, 1**

09:00-09:00

**Gaztelumendi**

J.A. Abasolo 2 - Durango

**Melero, Rosa Mari**

San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**

Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**EGUAZTENA, 2**

09:00-09:00

**Mugica**

Andra Maria 9 - Durango

**Melero, Rosa Mari**

San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**

Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**EGUENA, 3**

09:00-09:00

**Irigoien**

Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

**Melero, Rosa Mari**

San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**

Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**> ZORION AGURRAK**

✉ [zorionak@anboto.org](mailto:zorionak@anboto.org)  
eguaztenezko 14:00ak arteko epea



> Zorionak, **Elixabete!** etxeko guztien partez, gure printzesari. Musu handi bat denon partez.



> Hemen dago **Riasat**, ekitaldi garrantzitsu baterako prest, Athletic-ekoa, noski! Zorionak Matienatik!!



> Zorionak **Telmo**, zure 8. urtebetetzean, familia guztiaren partez. Musu handi bat!



> Zorionak **Helene!** Abenduaren 4an 10 urte beteko dozu jada! Musu handi bat etxeko danen partez!



> Gure poxpolin **Junek** 9 urte bete ditu. Zorionak eta musu pila familia osoaren partez.



> Zorionak, neskatila alai eta polita! Gozatu zure egunean eta opari asko izan ditzazula! Musu bero bat etxeko guztion partez.



> **Uma**, laztanoi! 8 urte... ez die gitxi! Ondo-ondo pasau zure egune eta aurrerantzeko guztixek be! Zorionak etxeko danon partez!




> Azterketak amaituta, asteburua pozik hartuko dau **Matxalenek!** Gañera, domekan, 14 urte! Zorionak familia guztixan partez!



> Zorionak gure etxeko neska haundiari. Patxo potolo bat, aita, ama, Malen eta Laian partez. Egune eder bat pasa daizule eta ia gustoko opariak jasoten dozuzen!



> Zorionak, **Uxue**, etxeko guztion partez. Jarraitu zure irribarrie zabaltzen.



> Zorionak zure lehenengo urtebetetzean, **Muayyad!** Zoriontasuna ekarri dozu gure bizitzetara, maite zaitugu! Zure euskal eta palestinar familiak.



Ermodo, 11  
DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
[gozatudurango@gmail.com](mailto:gozatudurango@gmail.com)

 **Gozatu Gozategia**

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta bat zoz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.



> Garaiko mutil jator honek azaroaren 28an 10 urte egingo ditu. Zorionak eta ondo pasa zure familia eta lagunekin!

katerin ardoak  
iñaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak  
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

90 GRADU

LAN BERTIKALAK  
TRABAJOS VERTICALES

FATXADA ETA PATIOEN  
KONPONKETAK ETA MARGO LANAK

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Tel.: 616 413 660  
[info@90gradu.com](mailto:info@90gradu.com)  
Bernagoitia auzoa, 14 - ZORNOTZA

ALDAMIORIK GABE



# “Pintxo-potea taparen nahi eta ezin hori dela esango nuke”

Euskal Herriarekiko ohiko aurreritziakin etorri zela aitortu arren, “asko eboluzionatu” duela dio Jose Moyak

**> AKUILUA** Aitziber Basauri Birraitona lez, 'Tomate' ezizenagaz ezaguna den jaendarrak lau urte daramatza Durangon bizitzen, Amaia neska-lagunagaz. Topikoekin kritikoa den arren, saihestezina da 'Ocho apellidos vascos' filmari erreferentzia egitea.

**Zerk ekarri zintuen Durangora? Maitasunak...**

Bai! (barrez). Segovian (Espainia) publizitatea ikasten nabilela ezagutu nuen Amaia neska-laguna. Karrera bukatzean etorri ginen Durangora.

**'Ocho apellidos vascos' filma dela eta entzungo zintuen....**  
Uff! Filmari erreferen-

tzia egin didan bakoitzeko euro bat batzeko potoa jarrita, diru asko batuko nuke.

**Eta aitagarrebagaz zelan?**  
Oso ondo! Pertsonajea da hura ere (barrez).

**Zuon istorioak badu halako paralelismoa pelikulagaz...**

Ez dut ikusi eta ez dakit ikusiko dudana. Agian inoiz bai, zergaitik ez? Hainbeste topiko... apur bat kritikoa naiz. Turismoari dagokionez, egin du bere lana.

**Topikoekin kritikoa zara?**

Sevillakotzat edo Cadizkotzat jotzen naute askok, zergaitik ez Jaengoa? Andaluziarra naiz bai... Hain

la ere, sevillarrak kapitalekoak dira eta cadiztarrak egundokoak! Jaen, Cordoba eta Almeria... Andaluzian daudela diote (barrez). Topikoak askotan ez datoz bat. Min egin dezakete.

**Etortzean zerk harritu zintuen?**

Ez dakizu zenbat eboluzionatu duen nire buruak! Onerako! Ohiko aurreritziakin nentorren. Heldu, eta Gasteizko Ama Zurietara eroan ninduten; presoiegi egindako omenaldiak ikusi nituen. Harritu ninduen jaientan ertzainak armekin ikustea... Jentea ezagututa dena aldatzen da.

**Hain desberdinak gara?**

Ez. Kultura oso desberdinak ditugu. Oso ondo hartu naute, nire herria babiliz. Hori bai, nekagatik etorri naizenez, neska kuadrilla

dut, eta kostatu zitzaien onartzea euren afari batera ni ere joan nintekeela (barrez).

**Nolakoak gara euskaldunak?**

Jende ona, zintzoa. Inozorik topa zenezake, baina hori, edonon. Gurasoak etorri zirenean ere, jende onez inguratuta nengoan ustean joan ziren.

**Eta andaluziarrak?**

Denetarik dago... alferrontzi hutsak eta benetako langileak!

**Pintxo ala tapa?**

Tapa! Pintxo-potea da taparen nahi eta ezin hori. Pintxo-potea egun osoan banatuko balitz, hori sustatuz gero, baliteke gauze beste irabaztea egunez, nork daki! Baina, bakoitza ondo dago bere tokian.

**Tabernak jendea ezagutzeko aukera ematen du.**

Askok, eta benetan pozten naiz. Hori bai, asko eroan behar da. Kurrikulumean beharko luke egon: psikologia! (barrez)

**Euskaldunoi falta zaigun grazia ei duzue andaluziarrek.**

Hala da, ez? Klimak eragiten du gehien. Nire herria 1.000 metro-ra dago, hotz egiten du, baina, hezetan hau... gorputzean sartzean, ezin berotan sartu!

**Euskaraz bai?**

Hasi ginen etorkin talde bat zerotik, Pinondon. Baina, 'poliki-poliki doa'... 'Egunon', 'eskerrik asko'... Aditzak eta jokatze ikastea behar da, eta hizkuntzak ez ditut indargune. Baina, ikasi gura nuke, nola ez!

## LAUHORTZA

**ITSASO GANGOITIA**  
Hezitzailea



### Bihar gaur izan dadin, DA!

Gogoan dudana lehenengo aldian, aitak eskutik helduta sartu nintzen. Kultura, sorkuntza, hizkuntza eta antzeko berbak aterpetzen zituen karpa zuri hark, eta handiegi geratzen zitzaidan niri, 6 urteko neskatxo txikiari. Liburu eta diskoz betetako erakusmahaiak ikusteko hanka puntetan jarri behar izaten nuen; hori gutxi ez eta, bultzakada artean, deskubritzeko eta arakatzeko modurik gabe, bat, bakarra, hautatzeko aukera ematen zidan aitak.

Arratsaldea pasata, gaztainera erreteak janda itzultzen ginen etxera. Eskuineko eskua aitari helduta eta ezkerrekoan, Durangoko Azokan eskuratutako altxor txikiak; bibotedun idazleen sinadurak, kolore eta tamaina ezberdinetako egutegi eta posterrak, argitaletxeetako aldizkariak eta udazken hartako nire nobedadea.

Euria barra-barra egin du azoka egunetan nik 6 urte nituenetik, eta aurtengoa 50.DA!

Helduen begiradapean txiki sentituta, azokan gure lekua aurkitu ez genuenok, zorionez gara! Haurrak eta helduak, txikiak eta handiak elkarrekin eta maila berean parte hartuko dugun gunea irudimenez bustiko da beste urtebetez. Transmisioa helburu duen maitasunezko aterpea, kolorez eta jolasez apaindua, irriz eta mimoz berotua. Helduok konturatu gaitezen kultura, sorkuntza eta hizkuntza ez direla zuri-beltzean idatzitakoak bakarrik, ume txiki eta herri txikiak, idazle ezpain gorriek eta haur eta gazte literaturak ere altxatu dituztela beren koloretako esku libreak. Bihar gaur izan dadin.

Etorkizuna orainaldian erakitzen delako, Saguganbara DA!



www.durangokoazoka.eus

# 50. DA!

## DURANGOKO AZOKA

### abenduaren 4tik 8ra

**ANTOLATZAILERAK**

50. ANBIA

**BABESLE NAGUSIAK**

50. ANBIA

**BABESLE PUBLIKAK**

DURANGO

Nafarroako Gobernua

**BABESLE PIBATIAK**

bbk EROSKI